Alberto BARBERENA
→ 51Nafarroako
txapeldun duatloian**Gehigarri berezia**

Moda

→ 27-32

BORTZIRIAK → 16

Euskara ikasleentzako beka deialdia onartu dute

GOIZUETA/LEITZA → 37

Haurren transexualitatearen inguruan hitzaldiak

BAZTAN → 39

Uholdeek hondatutako artxiboa berreskuratua

SARA → 48

Idazleen Biltzarra apirilaren 16an eta 17an

**IZASKUN ZUBIALDE** | 'Sumendia baratzean' liburuaren egile zubietarra

«Irakurketaz gozatzeaz gain, ikasbide bat islatzen du ipuinak»

Emozioak eta baloreak lantzeko ipuin-bilduma lantzen hasi da Izasku Zubialde, beste bi lagunekin batera, eta dagoeneko lehenbizikoa argitaratu dute: 'Sumendia baratzean'. 5 eta 9 urte bitarteko

haurrendako da eta euskaraz eta gaztelaniaz atera dute. Laster ingelesez ere egingen dute. Maiatz aldera bildumako bigarren ipuina kaleratu nahi dute eta azaroan hirugarrena. **ELKARRIZKETA → 3**

LASTERKETAK

Maldan gora eta behera gozatuz

Mendian ala errepidean, baina lasterka ibiltzea maite dutenek aukera ederra izanen dute hilabete honetan: Leitzako Herri Krosa apirilaren 8an egingen dute (9 km), Berako XIII. Maratoi

Erdia hilaren 9an (21,1 km), Arantzako II. Mendi Lasterketa apirilaren 23an (20 km) eta Bikin Batin duatloia apirilaren 29an Lesakan (20 km bizikletaz eta 13 km lasterka).

Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala apirilaren 8an Iruñean

Finalean ariko diren zortzi bertsolarietik bortz eskualdekoak izanen dira: Xabier Maia (Elizondo), Eneko Fernandez (Lesaka), Ander Fuentes Itturri (Zubietara), Xabier Terreros (Lesaka) eta Julen Zelaleta (Bera). Eurekin batera Julio Soto, Eneko Lazkoz eta Aimar Karrika ariko dira 17:00etatik aitzinera Anaitasuna kiroldegian.

→ 16

ERREPORTAJEA → 4-5

Haur errusiarrak gure artean

Errusiako bi haur etorriko dira udan gure eskualdera, Andrey borzgarren urtez Arantzara eta Olga Zubietara. Atarrabia Elkartasun Elkartearen bitartez etorriko dira, eta gisa honetako elkartasun proiektuekin, bertzelako bizi ereduak ezagutzeko aukera dute egunerokoan hainbat gabezia dituzten haur hauek.

ZOZKETAK

→ 60



Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra.

www.bertsozale.eus



Nafarroako
Bertsolari
Txapelketa
2017

FINALA

IRUÑEA - Anaitasuna kiroldegia

Apirilak 8, 17:00

JULIO SOTO



XABIER MAIA



ENEKO FERNANDEZ



ENEKO LAZKOZ



AIMAR KARRIKA



ANDER FUENTES "ITTURI"



XABIER TERREROS



JULEN ZELAIETA



Sarrerak:



bertsozale.eus



Laguntzailea:



berako
agenda

.eus



* Apirila *

berako
agenda

Ekitaldien gaineko informazio
gehiago: 948 012 012 telefonon
edo www.berakoagenda.eus



08
LARUNBATA

HERRI KIROLAK
17:30 Toki Onako patioan
Herriko haurren herri kirol
erakustaldia

Nafarroako Federazioak antolatutako ekitaldia:

Egurrezko figurak motozerrakin:

Pello Kanamares

Aizkolariak: bi bikote misto

Froga herrikoia: Arpana

Berako Herri Kirol Taldea & Manttale Mendi
lasterketa taldea & Ikusleak

08
LARUNBATA

ANTZERKIA
LA CAJA MAGICA
LES FIGURETTES
ANTZERKI TALDEA

19.00 Kultur Etxean

Iraupena: 90 min | Gaztelaniaz | Sarrera: 3 €

Argibide gehiago: <http://lesfigurettes.berko.com/lesfigurettes>

22
LARUNBATA

FITNESS EGUNA
Toki Onako patioan
Antolatzailea: Iridi Bera

29
LARUNBATA

AZIENDA FERIA
Kiroldegi aitzinean
Goizean azienda erakusketa
Bertako ekoizleen salmenta
Idi proba erakustaldia
Bazkaria

ISIDORO FAGOAGA,
BADA TENOREA!

ERAKUSKETA

Berako kultur etxean

Apirilaren 21etik maiatzaren 21era

Ortzegunetik larunbatera, 18:00etatik 20:00etara

Igandetan, 11:30etik 13:30era

INAUGURAZIO-EKITALDIA

apirilaren 21ean 18:00etan

KONTZERTUA

19:30ean Kabarna otzotearen kontzertua

Isidoro Fagoaga
BADA TENOREA!



28
IGANDEA

SOLASALDIA
"ISIDORO FAGOAGA,
IDAZLE ETA
KANTARI
BERATARRA"

19:00 Beralandetan

Hizlaria: German Ereña (ikerlaria)

Gaztelaniaz

LIBURUAREN EGUNEO
OSPAKIZUNA

07 / ORTZIRALEA: TAILERRA

TINTA ETA HARIAREKIN

JOSTETAN (ELUSKA KORTAJARENA)

18:00 Herri Liburutegian | Iraupena: 90 min

7-12 urte bitartekoentzat

Gehienezko kopurua: 15 parte-hartzaile

28 / ORTZIRALEA: HAURRENTZAKO

IPUIN KONTALARIA

MALETA KONTUAK (MAIDER GALARZA)

18:00 Herri Liburutegian

BERAKO XXIII.
MENDI MARATOI ERDIA
MARTIKO SARI NAGUSIA

08 / LARUNBATA:

17:00-19:00 Berako kiroldegian dortsal ematea.

09 / IGANDEA:

8:30 Bera-Larhun- Bera eskursioa lasterketa
ikusteko. 14 kilometro.

9:00 Bera-Ustatitak- Landagaita-Bera eskursioa
lasterketa ikusteko. 10 kilometro.

8:00-9:00 Berako kiroldegian dortsal ematea.

9:30 Berako Mendi Erdi Maratoiaren irteera

11:10 Irabazlearen ailegatzea guti goiti-beheiti
13:00 Azken sailkatuaren ailegatzea guti
goiti-beheiti

13:30 Sari banaketa, zozketa eta luntxa

Argibide gehiago: www.manttale.com

Euskal mitologiari buruzko 30 ipuin argitaratu ondotik, beste lan bat dute orain eskuarteaz laskun Zubialde zubietarrak, Bakarne Atxukarro Iruñean bizi den irunda-

rrak eta Asun Egurza barañaindarrak. Emozioak eta baloreak lantzeko materiala sortzen ari dira eta horrekin ipuin-bilduma bat egin nahi dute. Horren lehenbiziko ipui-

na da oraingoz kaleratu dutena: *Sumendia baratzean*. 5 eta 9 urte bitarteko haurrendako da, eta euskaraz eta gaztelaniaz atera dute. Laster ingelesez ere egingen dute.

Izaskun ZUBIALDE GRAJIRENA | 'Sumendia baratzean' liburuaren egile zubietarra

«Emozioak txikitatik landuz gero gizarte hobea izanen dugu»

G. PIKABEA | ZUBIETA

Nolatan sortu zaizue proiektu hau lantzeko ideia?

Emozioak txikitatik eza-gutzea eta erregulatzea ezinbestekoa iruditzen zaigunez, amets batetik sortu den ipuina egin dugu lehenbiziko. Helburu ezberdinak ditu liburu bakoitzak, baina denek emozioen ildoari jarraitzen diote. Emozioak txikitatik landuz gero, gizarte hobe baten jabe izanen garela uste dugulako sortu da bilduma hau egiteko ideia. Bestalde, Barañainen emozioak lantzeko tailerrak egin ditugu 8-9 urteko gaztetxoekin eta esperientzia hartan oinarrituz, lanean jarraitzeko materiala sortzen ari gara.

Zer aurkituko dugu lehenbiziko ipuinean?

Natura eta animalia txiki batek sortzen dituen emozio ezberdinak aztertzen dira. Horrez gain, ez ohiko familia bat da protagonista, ama eta bere bi seme-alabak hain zuzen ere. Hor ere gaur egungo errealitate bat islatzen da.

Euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu duzue. Eta laster ingelesez...

Mitologia liburuak euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu genituen euskaraz ez zekiten euskaltzaleak ere badirela konturatu ginelako, eta harrera ona izan duenez, berdin jarraitzea erabaki dugu. Inge-



UTZITAKO ARGAZKIA

Izaskun Zubialde *Sumendia baratzean* ipuina eskuetan duela.

lesarena, berriz, kasualitatez izan da, izan ere, EHUko UASC programakoak gurekin kontaktuan jarri ziren itzulpenak egiteko baimena eskatuz. Hitzarmen bat sinatu genuen eta itzulpen baimenaren ordainetan, testuak gure esku jartzen dituzte, argitaratu ahal izateko. **Zein gai landu nahi dituzue?**

Natura zaintzearen garrantzia, animaliak maitatzea, komunikazioa... Gai anitz izanen dira, irakurke-

IPUIN-BILDUMA

«Aurten, ziurrenik, bildumako hiru ipuin argitaratuko ditugu. Lehenbizikoa, *Sumendia baratzean*, argitaratua dugu, eta maiatz alderako bigarrena izanen dugu kalean. Dena ongi joanez gero, azaro alderako hirugarrena kaleratuko dugu».

taz gozatzeaz gain, ikasbide bat ere islatzen delako.

Zenbat liburu argitaratzea aurreikusia duzue? Hori argitaletxearen esku dago. Guk dagoeneko baditugu bospasei presaturik, baina azkenean, argitaletxeak du argia ikustearen giltza. Aurten, ziurrenik, hiru argitaratuko ditugu. Lehenbizikoa argitaratua dugu, eta maiatz alderako bigarrena izanen dugu kalean. Dena ongi joanez gero,

azaro alderako hirugarrena kaleratuko dugu.

Ez da hiruren artean egin duzuen lehenbizikoa lana. Nolako erantzuna izan dute euskal mitologiari buruzko ipuinek?

Oso-oso kontent gaude. Online moduan, lehenbiziko hiru egunetan 12.000 deskarga izan genituen, eta liburu fisikoan beste hainbeste saldu dira. Nola pentsatuko genuen gure etxeko txikientzat sortutako ipuinek halako arrakasta izanen zutenik? Frantsesera ere itzulia dugu mitologiako lehenbiziko liburu eta bruselarrei interesatu zitzaenez, liburuaren aurkezpena egingen bertan izana da Asun. **Nola ikusten duzue haur literaturaren egoera?**

Nik uste poliki-poliki aurrera doala, baina ez da erraza. Liburu bat sortzeak lan handia dauka, eta dudarik gabe, argitaratzea oraindik zailagoa da. Kalitatea eta jendeak izan dezakeen onarpena kontuan hartzen dira eta ez da erraza tartea egitea. **Etorkizunera begira zein asmo dituzue?** Hasteko, maiatzeko bildumako bigarren liburuaz gain, beste liburu bat ere argitaratzeko proiektua badugu. Nerabeendako genero nobela biografiko bat prest dugu, baina oraingoz, ezin dut gehiago aurreratu. Maiatzera arte itxaron behar duzue!

GIZARTEA → ELKARTASUNA

Etxetik urruti eguneroko min eta gabeziak arintzera

Errusiako bi haur etorriko dira uda honetan gure eskualdera

Atarrabia Elkartasun Elkarteari esker, Andrey bosgarren urtez etorriko da aurtan Siberiatik Arantzara eta Olga Zubietara. Gisa honetako elkartasun proiektuekin, bertzelako bizi ereduak ikusteko aukera dute egunerokoan hainbat gabezia dituzten haur hauek.

G. PIKABEA

«Ama, ni Arantzara joateko paperak egin dituzu? Eta zenbat denbora falta zait Arantzara joateko?». Halaxe, irrikaz eta gogotsu dago Andrey sorterria utzi eta bertze urte batez udan Arantzara etortzeko. Atarrabia Elkartasun Elkarteari esker, Siberiako Nizhnevartovsk herritik etorriko da, eta berekin batera, bertze bederatzi neska-mutiko etorriko dira Nizhnevartovsk eta Bryansketik (Txernobiletik hurbil) Nafarroara: Anna, Danila, Viktoria, Dimitri, Karina, Olga, Maksim, Arina eta Olga. Andrey ez da eskualdera etorriko den bakarra izan: Olga Zubietara etorriko delako. 10 eta 17 urte bitarte dituzte eta ekainaren 17tik irailaren 1era gure artean egon dira.

Egoera larrian bizi diren familietatik eta harreara etxeetatik datozen neska-mutikoak dira. Koldobike Gorostiza Uriguen arantzarrak ongi ezagutzen du haur horien egoera, aurtan borzgarren aldiz hartuko baitute Andrey etxean. Berak kontatu digunez, «hagitz bal-

dintza ezberdinetan» bizi dira: «harrera-etxeetan daudenak pisu ttiki-ttikietan bizi dira eta normalean jende aunitz bizi da elkarrekin». Haur horiek lehen mailako beharrak aseak dituzte, Errusiako Gobernuak harreran hartzen dituzten haur bakoitzagatik diru kopuru bat ematen dietelako hezitzaileei. Eta Gobernuak bera da haur hauek berogailua, jatekoa eta arropa badutela kontrolatzen duena. «Gabeziarik haundiena afektiboa izan daiteke, normalean haur pila hartzen dute harreran, eta elkar zaintzen dute».

Koldobikeren hitzetan, okerragoa da familietatik datozen haurren egoera: «baliteke afektiboki gabeziarik ez izatea, baina eguneroko lehen beharrak ase gabe dituzte: elikadura arazoak, etxeko berogailuarekin arazoak, arropa falta...». Familietatik datozen haurrak «hagitz pobreak» dira. Elkarteko kide batzuk egoera hori bertatik bertara ikusi dutelako daki «familietatik Nafarroara datozen haur batzuk hagitz pobreak direla». Are gehia-



UTZITAKO ARGAZKIA

Koldobike Gorostiza Uriguen bi semeekin, Andrey ezkerrean eta Beñat eskuinean.

go, «batzuk egurrezko etxeetan bizi dira, eta ez dute komunik ere». Errusian neguan, 35 gradu zero azpitik egin dezake eta «egurrezko etxetxo batean bizi badira, eta tenperatura horrekin, aterra kontuak zein baldintzatan bizi diren».

Baina Atarrabia Elkartasun Elkartearen bitar-

tez, udako hilabeteetan eta Eguberrietan eguneroko min eta bizi baldintza eskas horiek arintzeko aukera dute.

HAMAR HAUR NAFARROAN

Duela 25 bat urte hasi zen guztia. «Txernobilgo istripu nuklearraren ondorioz, Errusiako umezurtzetxeetan zeuden haurrekin laguntza eskatu zuen Errusiako Gobernuak. Estatu mailako mugimendua izan zen, eta hasiera hartan, Nafarroako Mugarik Gabe Elkarteari Atarrabia, Altsasu eta Arakilgo familia aunitz Errusiako haurrekin lanean hasi ziren», dio arantzarrak. Esperientzia haren ondotik, 1996an sortuz Atarrabia Elkartasun Elkartea: «bere momentuan 40 familia egon ziren elkartean eta gaur egun, hamar gara». Onartu digu familia berriak sartzea gustatuko litzaiekeela.

Euskal Autonomia Erkidegoan bada bertze elkart bat, Bikarte. Hain zuzen, elkartea honetako kideei irratian egindako elkarriketa bat aditu zutenean erabaki zuten Koldobikek eta familiak mu-

«Errusian neguan 35 zero azpitik egin dezake eta haur hauetako batzuk egurrezko etxeetan bizi dira. Gainera, arazoak dituzte elikadura aldetik, berogailuekin...»

gimendu honetan sartzea: «elkartekoekin harremanetan jarri ginen, elkarriketa bat egin ziguten eta haurrak zein errealitatekin datozen erran ziguten. Eta gaur egun, Atarrabia Elkartasun Elkarteko kide gara».

«SUPERBIBIENTEAK DIRA»

Bortz urte pasatu dira geroztik, baina Koldobikek gogoan du Andrey lehenbiziko aldiz etxera etorri zen urte hura: «urdu-ri etorri zen, eta hasiera gogor xamarra izan zen». Alde batetik, hizkuntza aipatu digu: «hizkuntzarekin gorabehera batzuk izaten dira. Elkartek egunerokotasunean sor daitetzen elkarriketak azaltzen dituen gida bat



ILUSIOA

«Euren errealitate krudelera bueltatu behar dute, baina hurrengo urtean itzuliko direnaren ilusioarekin bizi dira»

Koldobike GOROSTIZA
Atarrabia Elkartasun
Elkarteko kide arantzarra

ematen du eta horrez gain, keinuak ere erabili genituen». Hala ere, Andrey «hasieratik euskaraz ikasten hasi zela» azpimarratu digu: «hitzak barnerratu zituen, eta gehienbat euskaraz solasten ginen. Haur hauek superbienteak dira eta dagoenera moldatzen dira. Sinestezina bada ere, ikus-tekoa zen lehenbiziko bi hilabete eta erdian Andrey euskaraz nola moldatzen zen. Primeran barnerratu zuen euskara, elkar ulertzeko moduan».

Kulturaz ere aritu zaigu: «bertzelako kultura batetik datoz. Hagitz gogorak dira, egoera gogor batetik datozenak, eta errusiarren izaera bera ere hagitz gogorra eta hotza da. Etortzen direnean ez dituzte gure ohiturak ezagutzen, ez etxe-koak, ez kalekoak ere... Hortaz, eurekin egon behar da gauzak ulertarazi eta nola diren adierazteko». Haur hauek ez dutela arriskurik ikusten ere gaineratu digu: «ez dau-de ohituak euren gainean norbait egotera eta noraino ailegatzen ahal diren probatzea gustatzen zaie, dena ematea. Eurentzat bihurriketxoak direnak

hemen batzuetan bihurrikeria haundiak edo gogorak dira, eta hasieran, gainean egon behar da». Kasu bat aipatu digu: «igerilekura joan ginen lehenbiziko aldian, keinuen bitartez igerian bazekien galdetu genion. Berak baietz, eta salto egin zuen, baina urazpirajoan zen. Ez zekien igerian, baina inongo beldurrik gabe egin zuen uretara salto». Dena den, ez zenez saiatu gabe gelditu, «uda hartan, gibeleraka igerilekuan alde batetik bertzerara igeri egiten ikasi zuen, baita urpean igeri egiten ere».

Umezurtza da Andrey, eta Karina arreba bikiarekin udak Nafarroan pasatzen ditu. Arrebak Burlatan eta Andreyk Arantzán. Bizitza ez da erraza izan eurentzat: «Andrey joan den udan hasi zen bere bizitzako kontuak kon-tatzen eta bizitza gogorra izan du». Azaldu digunez, «ttikia zenean hil zitzaion ama eta ederki oroitzen da egun horretaz eta egun horretan bizi izandako hainbat egoeraz. Pasatutakoak pasatuta ere, haur goxoa, maitakorra eta mutiko ona da».

ATARRABIA ELKARTASUN ELKARTEA

• ZER DA ATARRABIA ELKARTASUN ELKARTEA?
Denbora batez haur errusiarrek harreraren hartzen dituen elkarte da. Haurrak Errusiako Bryansk (Txernobiletik hurbil dagoen lurraldea) eta Nizhnevartovsk (Siberia) herrietatik datoz. Elkartearen helburuak haurrak osasunean hobetzea, klima bortitzetatik atseden hartzea, indartzea.... dira.

• ZER EGIN BEHAR DA HAURRAK HARRERAN HARTZEKO?
Elkartearekin kontaktuan jarri: villabasolidaria@gmail.com helbidera idatziz edo 609 432633 telefonora deituz. Elkarteak hainbat ekintza antolatzen ditu (loteria, elkartasun merkatua, bestak...) autofinantzaketa lortzeko. Familia berriek horietan parte hartu behar dute eta horrez gain, hiruhilabeteko kuota bat ordaindu. Diru honekin dokumentuen tramitazioa, monitoreo eta haurren bidaiak ordaintzen dira.

• NOIZ ETORTZEN DIRA HAURRAK?
Ekainaren erdialdetik abuztu bukaera arte eta Eguberrietan.

«Uda akaberako argazkietan Andreyri ditzira ageri zaio aurpegian. Alaitasunez bete-beteak joaten dira».

EMAN ETA HARTU

Momentu politak ditu gogoan Koldobikek: «haurrak nola gozatzen duen ikusita, zein gustura egoten den, kalean eta batez ere bizikleta-rekin nola gozatzen duen...». Hori ederra dela dio. Hasieratik etxean aunitz lagundu duela ere azpimarratu digu: «etxe-ko lanak egiten, erosketak egiten, sukaldean, baratzean, ohea egitera-koan ez du zimur bat ere uzten...». Dagoeneko hemengora «ederki ohitu» dela ere adierazi digu. Gaur egun, «primeran solasten da euskaraz eta urtean zehar skype bidez mantentzen dugun komunikazioarekin ez zaio atzentzen. Urte-tik urtera lasaitu egin da, hemengo ohiturak ere ikasi ditu eta lagunak ere egin ditu eta ez du euren-ekin biltzeko arazorik».

Bidaia luzea egin behar du Errusiatik Arantzara etortzeko, baina inongo alferkeriarik gabe hartzen du hegazkina. Kontent etortzen baita eta etortzen denean «momentu guztiak aprobetxatu» nahi izaten omen ditu, «eta batez ere kalea. Siberian negua luzea denez, ordu aunitz etxean pasatzen

ditu, eta Arantzara etortzean, ordu guztiak etxetik kanpo pasako lituzke. Bizikleta hartu eta kanpora joan nahi izaten du. Aunitz gozatzen du horrela».

Andrey pozik, eta Koldobike ere bai, «hagitz gustura» dagoela aitortu baitigu. Are gehiago, horrelako harrera bat egitera animatu nahi du jendea: «errusiarrek, sahararrak, somaliarrak... Harrera desberdinak egin daitezke». Bere irudiko, «gure bizitzan sartuak gaude, lana, gure egin-beharrak... eta kostatzen da denboraldi baterako haurrak hartzea». Baina argi dio berak: «merezi du. Hurrei gauza aunitz ematen ahal dizkiegu eta eurek guri ere bai». Alaitasunez «bete-beteak» joaten direla ere aipatu digu: «lehenbiziko egunetan ateratzen ditugun argazkiak eta uda akaberakoak guztiz desberdinak dira. Uda akaberako argazkietan Andreyri ditzira ageri zaio, argitasuna... Badakit euren errealitate krudelera bueltatu behar dutela, baina hurrengo urtean itzuliko direnaren ilusioarekin bizi dira eta bada-kite hemen gurekin gozatu egingen dutela».



ARGAZKIA: ISABEL ELIZALDE

Joan den urtean Valeria izeneko neska errusiarra ekarri zuten Zubietara Isabel Elizalde eta familiak. Baina aurten, bertze bat ekarriko dute: Olga. Argazkian, Uliana Aranguren Isabelen alaba eskuinean, eta Valeria eta Julia, iaz uda pasatzera etorri ziren neskak.

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

Izan zen behin...

Bazen behin paraje zoragarri batean bizi zen ipuin kontalari bat. Belai berdez inguratua bizi zen. Ezkerrera zein eskuinera begiratu behi andana bat ikus zezakeen belai berde haien bazka hauta jaten. Liluratuta bizi zen, naturaren erdian, etxaberez inguratua. Halako ideia iturria altxortzat izaki, errexa zitzaion ipuinak asma-tzea. Baserriak, belai berdeak, animaliak... horiek izaten ziren bere ipuinen protagonistak. Herriz herri kontatzen zituen bere ipuin frexko, polit eta alaiak, jendearen txalo artean.

«Ipuin kontalariaren ipuinak aldatu ziren, zurrun, ilun eta triste bilakatu»

Dena aldatu zen base-riak, belai berdeak eta behiak zeuden tokian zementoa, sasiak eta autoak jarri zituztenean. Ipuin kontalariaren ipuinak aldatu ziren, zurrun, ilun eta triste bilakatu. Agortu ziren jendearen txaloak. Zer kontatu jakin gabe, ipuin kontalariaren ahoa betirako itxi zen. Bere begiak ere betirako itxi ziren inguruko paisaia etsigarriaren aitzinean. Triste, itsu eta mutu... ipuin kontalariak, esnea deitzen zioten errautsean ito zuen bere burua.

Ezpala

Aitor AROTZENA

Amaren abizena

Europako herrialde aunitzetan eta Estatu Batuetan emakumeak abizena galtzen du ezkontzerakoan. Gurean ez, baina seme-alabek bigarren abizentzat izan ohi dute amarena. Nonbaitetik hasi behar eta batzuk amaren abizena jartzen dute lehen lekuan, ohartu gabe amaren aitaren aitaren... aitarena dela. Polita litzake amaren amaren... abizena zein den ikasi eta erabiltzen hastea.

NabarmentzekoakDiana INIESTA
New York-en erakusketa

The Art Students League pintura eskolan ikastaroa egin ondotik, martxoan margolanak ikusgai jarri ditu Erratzuko artistak Manhattan-go The Phyllis Harriman Mason Gallery-n.

Alberto BARBERENA
Nafarroako duatloi txapeldun

Erreka Tri taldeko elizondarrak sprint modalitateko Nafarroako Duatloi txapelketa irabazi zuen martxoaren 18an Altsasun. Ordubete, 5 minutu eta 5 segundo behar izan zituen.

Uxuri ETXEGIA ETXEBESTE
Sunbillaiko ikaslea saritua

Arte Eszenikoen, Musika eta Dantzaren bigarren Olinpiadan hirugarren saria eskuratu du. 50 euro izanen diru Baluarteen eskaintzen den kultur programazioko saioetara joateko.

Atzera begira
→ 2002-IV-11
TTIPI-TTAPA 323 zk.

**Joku Zuzenaren lehen bilkuraz Josu Prim iruritarrekin**

Duela hamabortz urte, apirilaren 1etik 4ra Joku Zuzenaren lehen bilkura burutu zen Baztan-Bidasoaldean, Laxoa Elkartek antolatuta. Valentziatik etorritako pilotari gazteek lau egun pasatu zituzten nafarrekin esperientziak trukatzeko. «Elkarren arteko harremanak sendotu eta pilota modalitateak ikasi nahi ditugu», aipatu zigun Josu Prim, Laxoa Elkarteko kideak. Primek zioenez, «Euskal Herrian uste dugu pilotaren asmatzaileak garela, baina hori ez da egia. Euskal pilota deitzen duguna, ezker pareta, pala, erremontea, zesta punta... hori bai. Baina pilota hitz nagusiekin, aspalditik existitzen da».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 635458 • Faxa (+34) 948 635457 • whatsapp: 744 484361 • info@ttipi.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Arkaitz Mindegia, Josebiñe Agirre, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Joseba Urrotz, Iruñe Elizagoien, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Joana Gueren-diaín, Martin Bertiz, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leitzza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzuen Mank.

2017ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	36€
Leitzza	22€
Hego Euskal Herria	42€
Ipar Euskal Herria, Europa	75€
Amerika eta Australia	130€



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua



Kolaborazioak

Legeak egitea eta betetzea

Pello APEZETXEA ZUBIRI

Legea. Maiz entzuten den solasa. Jendartea egoki bizitzeko beharrezko jotzen den tresna. Demokrazia izeneko gobernatze sisteman funtsezko omen dena. Sistema honetan, hain zuzen, legebiltzarra deitzen dena da instituzio nagusia, legegilea. Bete, berriz, herritar guziek bete behar dituzte biltzar horrek sortutako legeak.

Hain erraz eta solas gutitan adierazitako gaiak zailtasun eta problema ugari daramazki berekin. Izan ere, legea jendearen bizimodua egokitzeko izaten ahal da, baina baita bizimodu hori okertzeko ere. Aunitzetan legea jende arrunt eta menpekoari betearazten zaio, ahaltzuek, kargudunek eta dirudunek axolagabeki baztertzen duten bitartean. Orainxe bertan ari dira Legebiltzarrean gobernuak “segurtasun legea” izendatutakoaz eztabaidan. Eta gehienen nahia lege hori kendu edo aldatzea da Herriarren mintzatzeko

eta manifestatzeko eskubideak ukatzen baititu neurri handi batez. Hor dabilta lantegietako hartuemanen legearekin ere gatazkan, langileen irabazi eta zenbait eskubide murrizten dituelako, nagusienak soberan zaintzen dituen bitartean. Bi adibide ditugu.

Hara legearen tranpa. Legearen ustezko santutasuna, eta ondoriozko nagusitasuna agintarien botere makila bilakatzen da dira. Legeak eurek sortu, eurek aldatu, eta betereazi edo ez betearazi eurek erabakitzen

baitute. Eurak dira legegileak, legebiltzarra; eurak dira lege interpretatzaileak, epaileak; eta eurak ditugu lege betearazleak, gobernuak, armada eta armadun guztien babesaz. Lege betearazleak legegileek hautatzen dituzte, gobernuak legebiltzarrak hautatzen du; epaileak legegileek eta gobernuak aukeratuak dira. Erabaki guztiak agintarien esku daude. Legezko agintarien esku, eta, neurri batean, horietan eragiten duten de facto edo egitatezko bertz boteredunen baimenarekin: dirudunak, batez ere.

Legeak ez dira santuak, ez. Legegileak ere, aunitzetan, santuak ez diren bezala. Gehiago eta gogorrago erran behar ote genuke, hainbatetan, gaizkileak direla?. Jende aunitzi kalte egiten baitiote. Egunero aditzen eta sentitzen ari garena hori da.

«Hara legearen tranpa. Legearen ustezko santutasuna, eta ondoriozko nagusitasuna agintarien botere makila bilakatzen da dira. Legeak eurek sortu, eurek aldatu, eta betearazi edo ez betearazi eurek erabakitzen baitute»

Diru zakarrak bihotzik ez du

Mikel TABERNA IRAZOKI «Kapi»

Gure abesbatzan ezagutu dugu Elena. Hargitz ongi kantatzeaz gainera, beti umore onez egoten da. Suerte pollita dugu horrelako lagunak ondoan izatea. Azkeneko hilabete honetan, ordea, diferente ikusi dugu. Broma guttiago, eta bere baitara bildua bezala denbora guzian. Ez genekien zer zuen, baina ez ginen atrebitzen sobera galdetzerara. Hondarreko, berak kontatu digu: problema koxkorra sortu zaio lantokian. Hogei urterekin hasirik, hogeita sei urte eman ditu jakiak prozesatzen dituzten fabrika batean. Gogor, baina, zer nahi duzu, baita gustura ere. Iruñe ondoan plantatua dagoen industria horrek Espainiako bertze zenbait tokitan ere baditu lantokiak. Eta orain, negozioa itxuraz ongi samar joa-nagatik, langileak despeditzen hasi dira. Langile zaharrenak kanpora bidaltzen ari dira, urte mordoxka eramaki dutenak. Elenak ikusi du nola joan diren banaka-banaka adio erraten bere lankide izan dituenak. Eta orain berari ailegatu zaio txanda.

Ez diote erran «fuera hemendik, ez zaitugu behar» edo «langile txarra zarela ez duzu tokirik hemen» edo «sentitzen dugu, baina nahitaez bota behar zaitugu». Ez. Bertze manera batean erakutsi diote atea. Erran diote lanpostua tokiz aldatu behar diotela, eta heldu den astetik aitzinera enpresa beraren Madrilgo faktorian hasi beharko duela.

Nagusiek ez dute botako gure laguna. Elenak bere borondatez (izorra hadi, Piarres!) utzi beharko du lana, nahiz eta ez dakien bertze lanposturik harrapatuko duen inon, duen adinarekin eta oraingo panorama ikusirik. Eta ez du hartuko despeditu izatera eman beharko zioten ordaina. Horrelako gauzak egitea posible da gaur egun Espainian ditugun legeei esker.

Inbertsio fondo batek agintzen du Elenaren enpresan. “Fondo de inversión bultre” erraten diote gaztelaniaz. Inbertsioa egiten duen jendearen sosak gobernatzen ditu putre horrek. Ez dakit inbertitzaileek ote dakiten zer egiten ari diren euren diruarekin. Oroitzen naiz poetak erranaz: diru zakarrak bihotzik ez du. Kasu honetan ere balio du: batere bihotzik ez du, eta sobera dabil jende zuriaren esku beltzetan.

«Bertze manera batean erakutsi diote atea. Erran diote lanpostua tokiz aldatu behar diotela, eta heldu den astetik aitzinera enpresa beraren Madrilgo faktorian hasi beharko duela. Nagusiek ez dute botako gure laguna»

Komikia



Irakurleak mintzo

Beintza-Labaien-
go gazteak,
Arantxa
Iturraldearen
hausnarketari
erantzunez

Oihana AROZENA
(Beintza-Labaiengo
gazteen izenean)

Ortziralra, ttipi-ttapa gure etxeetara iritsi den eguna. Herriko ihaute-riei buruzko hausnarke-ta irakurri genuen eta harridura handia, izugar-ritzko amorrua eta mi-na sentitu genuen. Ida-tzi honen bitartez, erres-petu osoz, gure desa-dostasuna adierazi eta salatu nahi dugu.

Ezbehar bat gertatu zen ihauterietan, bai, baina zorionez etzen ezer laririk gertatu. Ger-takaria susto txiki bat besterik ez zen izan.

Lehenik eta behin, argi utzi nahi dugu, ino-ren ezbeharretaz ez ga-rela pozten eta ez du-gula inoren kontu iririk egin.

Bestalde besteekiko daukagun karitatea eta laguntasuna zalantzan jartzea akusazio larria da. Are gehiago, gura-soek transmititutako ja-rarrera, balore eta eduka-zioa dudan jartzea. He-rri honen etorkizuna ger-taera honengatik epai-tzea hanka-sartze han-dia da, iraingarria gazte-ontzat. Gainera, nola li-

teke posible momentu hortan eta egun hortan zehar egon ez den per-sona batek, ezer ikusi gabe, ausartzea holako salaketa egitera, ze jus-tifikazio du horrek? ze-in dira arrazoiak herri oso bateko gazteak ho-lako tokian utzi nahi iza-teko? onartezina da. Eta bai, egia da gazteok as-ko daukagula ikasteko, baina baita irakasteko ere eta herriari emate-ko.

Gizartearen egune-rokotasunean txertatu-rik dauden jarrerak ez ditugu gehigi aipatuko guk, zeren eta gauza hauek oso subjektibo-ak dira eta gaia oso de-likatua. Gainera nork baieztatu dezake fami-

lietan izan diren betiko baloreak egokiak dire-la? Egia da gizartea al-datzen ari dela, norma-la den bezala, baina ho-rrek ez du esan nahi de-na txarra denik, hala ere esan bezala hau gaia pertsonala da eta ez ga-ra sartuko, bakoitzak bere ikuspuntua baitu. Idatz honen bitartez au-dera probextu nahi du-gu ere gure familiei esa-teko oso harro gaude-la transmittitu diguten heziketaz, baloretaz, edukazioaz.... badaki-gu eta beti saiatu dire-la gauzak ahalik eta ho-beren egiten.

Bukatzeko azpima-rratu nahiko genuke, La-baiengo gazteak, lehe-nengo gauza, pertso-

nak garena eta sentimen-duak dauzkagula, ez ga-rela ez antisozialak, ez gizatasunik gabekoak, ez lotsa gabeak, ez ma-terialistak... eta erabili diren hainbat termino. Ondo pasatzea gusta-tzen zaigu noski, baina beti saiatzen gara erres-petuz ibiltzen, naiz eta gure akatsak ere ditu-gun eta izango ditugu denak bezala!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

sarobe®
gozotegia okindegia

pº de eztegarra 25 bajo
31780 Bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

Goieko DESIN BERA
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

DESINFEKZIOAK · DESINSEKTAZIOAK · DESARRATOITZEAK
Zure inguruak klase guzietako insektuz (xomorro, zinurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi xogutxoak garbitu nahi baduzu deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

T. 948 625 597 · Zalaín, 42 B · BERA

xirgil
jaione goya

ileapaindegia mistoa

Altzate 1, 31780 BERA
948 631 462

Alberto RETEGI
abokatua

948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

KSAT
TELEKOMUNIKAZIOAK
ANDONI
LASAGA APEZTEGUIA

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko interneta
- Internet konexio simetrikoko ultralastera

T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabako@gmail.com

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttipi.eus

Prentsarik bildutakoak



«Badirudi orain deskubritu dugula Baztan, eta orain deskubritu dugula nobela beltza! Erakutsi nahi izan dugu Baztan hemen zela aspaldidanik, eta gainera, nobela beltzarekin ere izan duela lotura. Hor da, errateko, Mariano Iztetaz eskribitu zuen nobela beltza, *Dirua galgarri*, euskarazko literaturaren historian bigarren nobela beltza, alegia».

Elurre IRIARTE
(H)ilbeltza elkarte
ARGIA 2017.03.26

«la-ia esperimientua izan zen lehen edizioa hura. 2015ko ilbeltzetik honat hiru urte egin ditugu eta pisua irabazi du (H)ilbeltzak, presentzia irabazi du nobela beltzaren asteak Euskal Herrian egiten diren literatur ekitaldien barnean. Gurea, negukoa. Eako Poesia Egunak dituzu udan, Zarauzko Literaturia udaberrian, Durangoko Azoka udazkenean...».

Elurre IRIARTE
(H)ilbeltza elkarte
ARGIA 2017.03.26

11 galdera labur

Nor dugu Aitziber Iturria?

Agerrako beratar neska bixi eta alaia.

Denbora libreduzunean zer egitea gustatzen zaizu?

Lagunekin egotea eta mendi itzulixkak egitea.

Ostatuan barraren bertze aldean daudenek edo begirale zarela haurrek egiten dute kasu gehiago?

Dudarik gabe, haurrek! [irriz].

Bisitatu duzun tokirik ederrena?

Momentuz Kubako Trinidad. Baina leku polit gehiago eza gutzeko intentzio eta gogoarekin nago.

Berako txokorik gustukoenak?

Eguraldi onarekin Larun Tiki, dudarik gabe!

Lasterka mendian malda gotti edo beheiti nahia go?

Beheiti. Hagitzez gusurago noalako nahiz eta lurrean bukatu beti [irriz].

Amak ala alabak du sasoi hobea?

Amak! [irriz].

Berako Maratoi Erdi-rako zein helburu dituzu?

Irabazi... Ez, ez, ergelkeriak aparte. Azken bi urteetan bezalaxe, disfrutatu eta ongi ailegatu

Zer du Berak horrenbertze lasterkari izateko?

Manttale lasterketa taldea.

Xaloan aurkezle... Zein albiste emanen zenuke gustura?

Uff, aunitz emanen nituzke baina bat ematekotan heritarrek aukeratutako Euskal Herri libre batean bizi naizela erratea.

Amets bat?

Konpainia onean, furgoa hartu eta norabide zehatzik gabe bidaiatzea.



Aitziber ITURRIA GARMENDIA → Berako gaztea

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

"TELLETXEA"
Lorazaintza
Kimakerak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak | Paisajismoa
Otxangoko Ind. 18 | LESAKA
T. 619 418 683 | johnneteltxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

KATEA BIKE
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.
Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak
2. eskuko bizikletak
Kanttonberri 1, BERA 948 631 218
kateabera@telefonica.net
MASSIMO ORBEA CANNON SCOTT LOOK

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

KULTURA → APIRILAREN 21EAN KARBANA OTXOTEAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU

Isidoro Fagoaga Larratxe omenduko dute urte osoan

Ekitaldi nagusia maiatzaren 6an

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 26an 80 urte beteko dira Gernika bonbardatu zutenetik. Data horrek berebiziko garrantzia izan zuen Isidoro Fagoaga beratarrenengan. Sizilian (Italian) kantuan ari zela, bonbardaketaren berri izan zuen, eta betirako kantua utziko zuela erabaki zuen. Gerora, *Pedro Garat, el orfeo de Francia* bere lehenbiziko liburuan eman zituen erabaki horren azalpenak: «Espainiako Gerrak nire herrikideekiko dolua eta zoria partekatzea eraman ninduen. Egoera hartan ez nuen bertze biderik, kantua betirako uztea baino, kontrakoa etsaierekin hitzarmena egitea litzatekeelako».

Urtemuga hori aitzakiatzat hartuta, Isidoro Fagoagaren bizitza eta ibilbide artistikoa ezagutzera emateko hainbat

ekitaldi antolatu ditu herriar talde batek, Udalarekin lankidetzan. Apirilaren 21ean, Kultur Etxean, 18:00etan Isidoro Fagoagaren ibilbidea bilduko duen erakusketa zabal batekin eta Karbana otxotearen kontzertuarekin emanen zaio hasiera urtemugari, eta udazkena bitarte Isidoren ibilbidea eza-gutzeko solasaldiak, hainbat kontzertu, musika eskolako ikasleen antzerki musikakua... antolatu dira. Herriko ikas-tetxeekin ere landu da gaia, eta erakusketan parte-hartu eta bisitatzear haratago, Fagoagaren bizimodua biltzen duen komiki bat izango dute ikasleek eta ginkana batean parte hartuko dute, bertze ekitaldi batzuen artean.

Omenaldi nagusia, nolanahi ere, maiatzaren 6an, 12:30ean, eginen zaio, Berako Abesbatzaren, Bandaren eta Gure Txokoako dantzarien eskutik, eta bere sortetxeko atarian, Illekuetako Agramontean, oroit-plaka bat paratuko da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Isidoro Fagoaga, 1912an Argentinan ateratako erretratoan.

Urtemugako ekitaldiak epe ertainera zerbait iraunkorragoa sortzeko baliatu nahi dituzte antolatzaileek, eta familierekin eta Udalarekin es-

ku hartuta, Nafarroako Gobernuarekin ere harremanetan paratu dira, Isidororen lanak Berako herrian toki iraunkor bat izan dezan.

BIOGRAFIA

Berako musikari handi bezain ezezagun hori

TTIPI-TTAPA

Konpromiso politikoak eraginda, arruntean atzendua izan da Isidoro Fagoaga, eta Beran bertan nahiko ezezaguna da. 1893an sortua, 14 urte zituela, Argentinara joan eta kantua ikasten hasi zen. Ikasketa horietan saskontzera Milanera eta Parmara joan zen, eta I. Mundu Gerraren ondorioz, Italia utzi eta Madrilera joan zen ikasketak bukatzera. Madril en egin zuen bere debuta, 1919an. Geroztik, munduko antzoki ospetsuetan aritu zen kantuan, batez ere, Italian. Milano Scalako tenor handienetakoa izan zen bi mundu gerren arteko garaian.

Kantua utzitakoan, Donibane Lohizunen erbesteratu zen. Atxilotu eta hilabetez, hagitx baldintza txarretan, Gurseko (Bearnoko) kontzentrazio-esparruan sartu zuten. Handik Argentinara erbesteratu zen.

Sei liburu argitaratu zituen. Euskal Herrira itzuli zen 1964an eta Donostian bizitzaren paratu zen, inoiz ahaztu ez bazuen ere beresorteria. 1976an Donostian hil zen.



Bidasoa, 8 BERA
T. 948 63 01 77 (ile-apaindegia)
T. 948 63 14 48 (estetika)

Ordutegia

Astlehena, asteartea
ortzeguna, ortzirla
09:00-17:30

Asteazkena
15:30-19:00

Larunbata
08:00-13:00



MOZTU ILEA ETA
"Mechones solidarios"
ELKARTEARI EMAN

Gutxienez 20 cm-ko ilea | 5€ ile-mozketa



www.mechonessolidarios.com

GIZARTEA → INGURUMENA ZAINTEAZ GAIN AURREZTEA ERE LORTU DA SISTEMA BERRIAREKIN

Bertako egurra erabiltzen hasi dira biomasa galderetan

Lehenengo proba egiteko urte batez 100 Tona inguru pago egur idortzen utzi dituzte mendian

TTIPI-TTAPA

2014 urteaz geroztik bero sarea martxan dago, Toki Ona institutua, kiroldegia, Mukixu haur eskola, Rikardo Baroja eskola eta Altzateko Labiaga ikastolara ur beroa eramanez. Eraikin hauek berotzeko galdara-gela kiroldegi atzeko aldean kokatua dago eta urtean 150 Tona egur ezpal erretzen dira. Instalazioaren mantenua egiten duen enpresak ekarri izan du orain arte ezpala. Orain berriz, Udalak ezpala bertako egurrekin egiteko saikera egin du eta galdarak bertako egurraren ezpalarekin hornitzen hasi da.

Lehenengo proba hau egiteko, 100 Tona inguru pago egur urte batez idortzen utzi dira mendian. Behin hezetasun puntu egokia hartu dutenean, %30an azpitik, galdara gelaren ondora ekarri dira eta bertan enborrak ezpal bi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko mendietan idortutako pago egurra, ezpal bihurtzen.

hurtu dira. Ezpalak %28ko hezetasun maila eman du, erretzeko nahikoa. Proba honekin bertze pauso bat eman du Udalak energia berriztagarrien erabileran eta baita bertako ekonomia bultzatzen.

Berotzeko sistema hau jarri zenetik Udalak urtero 15.000 euro inguru aurrezten ditu eta «orain bertako egurra erabiliz oraindik merkeago aterako zaigu eraikin hauek berotzea». Lehenago gasarekin eta gasoilarekin berotzen ziren eraikin hauek gaur egun bertako egurrak ematen duen energiarekin berotzen dituzte: energia berriztagarria, bertakoa eta merkeagoa gainera.

Ba al zenekien

Liburaren Eguna ospatzen hasteko, apirilaren 7an, ortziralean 18:00etan *Tinta eta hariarekin jostetan* emanaldia (7-12 urtekoentzat) eskainiko duela Eluska Kortajarenak liburutegian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Uxaneko antzerki taldeak 'Hotel Brasil' eskaini du

Aspaceko Uxane zentroko ikasleek Hotel Brasil antzezlanak eskaini zuten martxoaren 24an Kultur Etxean. Jende aunitz bildu zen Uxanekoek urtero eskaintzen duten emanaldiaz gozatzera.

MARITX
Legia, 23-BERA
T. (0034) 636 617 450
Erakusketa, Proiektu eta Instalazio Elektrikoak

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
Tlf: 948 625 474
BERA NAFARROA

Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak & Gremioen koordinazioa
629 449 602

LESAKA

KULTURA → MARTXOAREN 25EAN HARRIONDOAN

163 abeslari eta 500 ikusentzule bildu ditu Haur Kantu jaialdiak

Gero herrira ekarriko duten Artea Oinez erakusketa irekiko da ortziralean Iruñean

Aitor AROTZENA

Nafarroa Oinez eguna urriaren 15a izanen da, baina urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen ari dira. Martxoaren 25ean, haur eta gaztetxo kantujaialdiko saio bikaina izan zen: 163 abeslari, 23 musikari eta 500 ikusentzule baino gehiago bildu zituen Harriondoa Kultur Etxeak bi emanaldietan. Biak, Tantirumairu ikastolako ikasleek Huntzaren *Aldapan gora* kantatuz hasi zituzten eta biak, abeslari, musikari eta ikusentzuleak, *Gukeuskaraz* kantari bukatu zituzten. Tartean, lehen emanaldian Goizueta-ko eskolako, Leitzako neskak eta Arano herriko taldeak, Leitzako Xana eta Kattalin Rete- gi ahizpak bikotea eta

Azpilkuetako Enara Arregik kantatu zuten eta bigarrenean Mendaur trikiti eskolako lau taldek, Sunbillako eskolako bik eta Baztan Ikastolako taldeak.

ARTEA OINEZ

Apirilaren 7an, ortziralean inauguratuko dute Iruñeko Kondestablearen Jauregian Artea Oinez erakusketa. Aurten, Jose Luis Zumeta margolaria omen- duko du Nafarroa Oinez- eek, apirilaren 7tik maiatzaren 6ra Iruñean ikusgai izanen den erakusketan. Gero, Harriondoa ekarriko dute Euskal Herriko 71 artistaren (tartean herriko Javier Igoa, Juan Carlos Pikabea eta Irantzu Pastorenak, bertzeak bertze) 72 artelan dituen erakusketa bikaina, maiatzaren 19tik ekainaren 4ra.

BIKIN BATIN DUATLOIA

Apirilaren 29rako, ber- rriz, Bikin batin duatloia prestatzen ari dira. Ki- rrolariek izen-emateko epea zabalik dute eta horietaz gain, 14:00etan



ARGAZKIA: NAFARROA OINEZ

Tantirumairuko taldea, Haur Kantu jaialdian Huntzaren 'Aldapan gora' kantari.

MAIATZAREN 20AN HARRIONDOAN

Sutagar taldeak kontzertua eskainiko du

A. AROTZENA

Sutagar taldeak *Maitasunari pasioa* bere azken diska aurkezteko egiten ari den *Antzokietan 2017* bi- rako kontzertu bat maiatzaren 20an eskainiko du Harriondoa Kultur Etxe- an, larunbatean 20:00etan. Sarrerak 18 eurotan salgai daude Telletxea estankotan, Legarra eta Xagu libu- rudendetan eta Zialdo ostatuan.



frontoian eginen den herri bazkarirako txar- telak hartzeko epea ere zabalik da apirilaren 23ra arte. Helduek 12 euro ordaindu beharko dute eta 12 urte arteko haurrek 6 euro. Okinde- gian edo Berako Xuga ostatuan eskura dai- tezke txartelak, baita koordinazioa@oinez2017.ikastola.eus helbi- dean. Bazkaria girotze- ko musika izanen da eta bazkalondoa sari ez- berdinen zozketak ere eginen dituzte.

FLASH**'El guardián invisible' bisita gidatuak**

Dolores Redondoren Baztango trilogiako lehen liburuan oinarritutako *El guardián invisible* filman herriko irudi aunitz ageri dira. Horiek eta herriko bertze txoko batzuk ezagutzeko 90 minutuko bixi- ta gidatuak antolatu dituzte, 6 eurotan.

Musika Eskolaren Udaberriko kontzertua

Musika Eskolak Udaberriko kontzertua eskaini- ko du apirilaren 12an, 18:00etan Harriondoa.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Nafarroako Orkestra Sinfonikoak kontzertua es- kainiko du apirilaren 20an, 20:00etan Harriondo- an. Sarrera 6 euro gostako da.

BEKO
LOREAK ETA LANDAREAK
Frain Auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637 826

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Bitorriana, 3 - Lesaka
Tel: 948 637 127

ttipi-ttapa
744 484 361

USOA
Nekazari kooperatiba
T. 948 635 214
ETXALAR
• Pentsu ekologikoak
• Kalefakzio eta ibilgailuendako gasolioa
ETXEZ ETXEGO BANAKETA

KIROLA → 24 ETA 30 KILOMETROKO IBILBIDEAK

Etxalarko III. Mendi Itzulia apirilaren 23an

Antolaketa
bilera apirilaren
8an izanen da

Iruñe ELIZAGOIEN

Aitzineko edizioetan bezala oinez egiteko bi ibilbide izanen dira aukeran apirilaren 23rako antolatu den Etxalarko III. Mendi Itzulian. Batek ibilbide motza egonen da (24,2km eta 1200 m-ko desnibelarekin) eta bertetik ibilbide luzea (30,36km eta 1526 m-ko desnibelarekin).

Itzulian parte hartzeko federatu gabeek 12 euro eta federatuek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Izen-ematea egunean bertan goizeko 6:30etik 8:00ak arte frontoian edo aurretik www.mendizmendi.com orrialdean egingen da. Irteera 07:30etik 08:30era izanen da eta parte hartzaile bakoitzari dagokion txartela emanen zaio irteerako postuan, hurrengo kontrol postuetan erakusteko. Ez da inolako sailkapenik

egonen eta bidea behar bezala seinaleztatua egonen da. Antolatzaileek osasun postuak jarriko dituzte, haietan edozein momentutan behar den laguntza emateko eta beharrezkoa bada, antolatzaileek ibilaldia eten ahal izanen dute edozein unetan. Ibilbidea bukatu baino lehen uztea erabakitzen bada, antolatzaileei abisua eman behar zaie 689246850 telefonoan.

Itzuli honetan herriko zenbait leku ikusgarri ezagutzeko aukera izanen da; Mendiko Harri, Etxalar eta Sarako Usategiak, Atxuria... Ibilbidearen bukaeran jatekoa eta edatekoa izanen da itzulia egin dutenentzat, baita oparixoren bat ere. Mendia eta oinez ibiltzea gustuko dutenek hitzordu polita dute apirilaren 23an Etxalarren.

Hau guzia antolatzen joateko bilera apirilaren 8an egingen da kultur etxean 19:00etan.



ARGAZKIA: IRUÑE ELIZAGOIEN

San Jose Zurginaren Kofradia

San Jose egunarekin, kofradiako kide bakoitzak bere urteko kuota ordaintzeko aukera izan zuen Elutsa ostatuan. Kofradiako kide bat hiltzen denean, meza ateratzen zaio eta horren kontuak egiten dira egun honekin.



ARGAZKIA: ALAITZ DANBORIENA

Elutsa ostatuaren 20. urteurreneko besta

Martxoaren 25ean Elutsa ostatuak bere 20. urteurrena ospatu zuen. Arratsaldean mus txapelketa izan zen eta hauek izan ziren saridunak: Txapeldunak Elutsan afari eder bat irabazita Anjel Mari Iribarren eta Aitor Santsiñena; bigarren postuan berriz, Martikoko lotea lortu zutenak Javier Galarregi eta Asier Maia. Parte hartzaile guztien artean zozketak egin ziren eta saridunak Xabier Sanzberro eta Joseba Irazoki suertatu ziren. Ilunabarrean pintxoak eta gauen Txamukoseko Beñat eta Fernandorekin kontzertua izan zen.



Lehen jaunartze eguna

Menu ezberdinak
Haurrentzako animazioa

Bazkal ondoren haurrek jolastu, dantzatu eta ongi pasatzeko espazio berezia dugu, **animatzaile** baten eskutik. Eguraldiak ez badu laguntzen egokitutako leku estalia dugu.

Kontsultatu gure eskaintzak
T. 948 63 50 00 | info@etxalar.com



ARANTZA

KIROLA → APIRILAREN 23ARI BEGIRA

Mendi lasterketan lagundu nahi dutenentzat bilera egingen da larunbat honetan

Ekaitza
Elkartean
19:00etan da
hitzordua

Nerea ALTZURI

Apirilean sarturik, gero eta hurbilago dugu II. Mendi Lasterketa. Apirilaren 23an izanen da. Ekimena borobil ateratzeko herritarren laguntza eskertuko da: mendian zenbait puntutan lasterkariei bidea erakusteko, mendira puskak garraiatzeko, ibilbidearen markatzeko eta bertze hainbat lanetarako jendea behar baita.

Laguntzeko prest izanez gero, larunbat honetan, Ekaitza Elkartean 19:00etan egingen den bilerara agertzeko deia egin dute Udaletik eta Ekaitza Elkartetik.

Aldez aitzinetik izena ematea ere eskertuko da, Igor Ugalde zinegotziari abisatu.

Mus tximista Burladan

Larunbatean, hilak 8, 16:30etik aitzinera, mussean aritzeko aukera izanen da Burlada jatetxean. Mus tximistan parte hartu nahi duenak 647 404839ra dei dezake edo bertzeala, larunbatean, 16:00 arte izena eman. Bikoteak 20 euro ordaindu behar ditu. Sari ederrak daude joan: bikote txapelduak 500 euro, txapela eta txanpaina; bigarrenak bi afari eta ardoa; hirugarrenak Martiko lotea eta ardoa; laugarrenak gazta eta ardoa; eta borzgarrenetik zortzigarren bikotera ardoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek Gure Esku Dagoko bideoklipan

Ekainaren 18ko herri-galdeketa egin ahal izateko behar ziren 81 aranztarren sinadurak erraz lortu ditu Eman Bortzekoa Elkartek, 166 bildu baititu. Baina bertze ekitaldiak antolatzen ere ari da eta horien artean, borts herrietan bideoklipa ere grabatu dute. Herritar saila agertuko dira bideoklip horretan, tartean argazkiko kuadrilla. Bideoklipa apiril erdialdera herrian berean ikusteko aukera izanen dugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gazteak sagardotegian

Gazte Asanbladak antolatuta, Astigarragako Bereziartua sagardotegian izan ziren gazteak joan den martxoaren 25ean. Ederki ibili omen ziren!



New Straits Aterpean

Irun eta Oreretako New Straits taldeak, Dire Straits talde ezagunaren tributoa egiten duenak, kontzertu bikaina eskaini zuen Aterpean martxoaren 25ean. Iaz, udan hasi ziren jotzen eta Aterpean lehen saioa egin zuten. Bildutakoak gustura egon ziren musika aditzen.

SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
KOLTXOIAK - ETXETRESNAK

BORTZIRI
UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa

- Kirol Fisioterapia
- Osteopatia
- Masaia
- Trafiko istripuetan aholkularitza
- Istripu eta osasun aseguruak
- METODO BERRIA
- Umeentzako arnas fisioterapia

Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • **BERA**
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • **IRUN**

ERREKALDE
OSTATUA

PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATUAK

TFN: 948 630 259
BERA

GIZARTEA → EKAINAREN 18AN EGINEN DUTE

Herri galdeketa egiteko 1.183 sinadura bildu dituzte

Eman Bortzekoa taldeak antolatutako mus txapelketaren finala, berriz, igandean jokatu dute Igantzin

TTIPI-TTAPA

Eman Bortzekoa elkarteak aurkeztu zenetik bi hilabetera 1.183 sinadura bildu dituzte Bortzirietan udaberrian egin nahi den herri-galdeketa egin ahal izate-

ko. Herri-galdeketa egiteko nahitaezkoa da 16 urtetik goitiko biztanleen %10aren sinadura Lesakan eta Beran, eta %15ekoa Arantzán, Igantzín eta Etxalarren. Bada, elkarteak hasierako helburua gainditu du.

Herriz-herri sinadura hauek bildu dira:

- Arantzán: 166 (%30,9)
- Igantzín: 106 (%20,8)
- Etxalarren: 104 (%15,8)
- Lesakan: 455 (%19,7)
- Beran: 352 (%11,3)

Sinatzaile horiei guztiei esker, erabakitze aukera izanen da Bortz Herrietan eta eguna ere erabaki dute: ekainaren 18a.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Eman Bortzekoa elkartearen aurkezpena, urtarilaren 15ean Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko konbentuan.

Galdeketa horretarako galdera adosteko lehen saio irekia ere egin dute apirilaren 1ean Beralandetan.

MUS TXAPELKETA

Bertze aldetik, Eman Bortzekoa Elkarteak herriz-herri ekintzak antolatzen segitzen du. Orain, bortz herrietan mus txapelketa jokatzeari dira. Herriz-herri kanporaketak jokoan dira eta herriko kanporake-

ten irabazleek sari-potoez gain, finalerako txartela eskuratuko dute. Arantzán, Beran, Etxalar eta Igantzín joan den asteburuan jokatu dituzte kanporaketak eta Lesakan, apirilaren 7an, ortziralean 22:00etan jokatu dute Arranon.

Herriko kanporaketako sariak hauek izanen dira: Errigorako lotea, Arantzako Mikel Leizaren nekazal produktu-

en saskiak eta Martiko-ko produktuen lotea.

Finala, berriz, apirilaren 9an, igandean jokatu da Igantzínko Biltoki elkartearen.

Finalean lehenbiziko gelditzen den bikoteak Lesakako Lindurren-borda sagardotegian bi lagunentzako afaria eskuratu du eta bigarren sailkatzen denak, berriz, Etxalarko La Basquen bi lagunentzako afaria.



**LEIHOAK / KONTRALEIHOAK
SARRERAKO ATEAK / ITXITURAK
PERTSIANAK / MOSKITERAK**

Ordoki ind. ARIZKUN / T. 948 453 259 / F. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com / www.betikopvc.com





Mundua ikusi, dirua aurreztu eta natura zaintzeko bitartekoak

BETIKOn LEIHOAK NEURTU, FABRIKATU eta INSTALATZEN DITUGU



**PVC-zko sistema bakarra*
Passive house ziurtagiriarekin
BETIKOn daukagu.**

**6 kamara 82 mm-ko profila
Merkatuko isolamendurik
hoberena.**

A+++

* 70 mm

EUSKARA



BERTSOLARITZA → IRUÑEKO ANAITASUNAN (17:00)

Nafarroako Bertsolari txapelketak igandean izanen du helmuga

Xabi Maia elizondarra lehen aldiz izanen da finalista

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 8an, larunbatean, jokatuko da Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. 17:00etan hasiko da, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian.

Zortzi bertsolari ariko dira ohol-tza gaineran, finalurrekoetako saio bakoitza irabazita-ko hiru bertsolariak (Julio Soto, Xabi Maia eta Eneko Fernandez), eta puntuazioaren arabera-ko hurrengo bostak (Eneko Lazkoz, Aimar Karrika, Ander Fuentes Itturri, Xabier Terreros eta Julen Zelaieta). Gai-jartzaile eta aurkezle lanetan Alaitz Rekondo eta Fernando Anbustegi ariko dira.

Zortzi bertsolarien artean, bakarra da final batean lehen aldiz parte hartuko duena: Xabi Maia. Gainerakoek, eskarmentu handia dute

finaleran. Izan ere, hainmargarren parte hartzea izanen du Julen Zelaietak, zortzigarrena Julio Sotok, bosgarrena Xabier Terrerosek eta Eneko Lazkoz, eta hirugarrena Ander Fuentes Itturri, Eneko Fernandezek eta Aimar Karrikak. Finalisten artean txapel-dunak izandakoak ere badira: Julio Soto (hirutan) eta Julen Zelaieta (behin).

Gainera, udazkenean abiatuko den Bertsolari Txapelketa Nagusi-an ariko diren borts na-

far ordezkariak nortzuk diren zehazteko ere balioko du finalak: lehen bost sailkatuek Txapelketa Nagusian parte hartzeko eskubidea izanen dute.

SARRERAK

18 euroko prezioa dute sarrera arruntek, eta 12 eurokoa 16 urte-tik beherakoek eta Bertsosale Elkarteak bazkideen sarrerek. Ondorengo bideetatik esku-ratu daitezke:

- www.bertsosarrerak.eus atarian, larun-

bat goizera arte.

- Ortziralera arte, eskualdean Elizondoko Fantxike dendan, Lesakako Okindegian eta Leitzako Maimur liburudendan. Larunbatean bertan, Anaitasunako leihatiletan (11:00-13:30 eta 15:00-17:00).

Anaitasunako ateak 16:00etan irekiko dira. Nafarroako Bertsosale Elkarteak denborarekin joateko gomendioa egin du, jende aunitz bilduko delako, eta azken orduan trabarik egon ez dadin.

LUZIA GOÑIK JARRIKO DU TXAPELA

Bertsolaritzaren transmisioan emakumearen lana

TTIPI-TTAPA

Bertsolaritzaren transmisioaren bide luzean, asko dira isilpean lan egiten duten ezinbesteko katebegiak. Horietako bat da aurtengo txapel-dunari txapela jarriko diona ere: Luzia Goñi Olias. 1928an jaio zen Aizarotzen, orain 89 urte. Ogibidez sukaldaria, bizi osoan zehar mantendu du bertsogintzarako afizio eta sorkuntza. Ehunka bertso idatzien egile da, eta atzoko eta gaurko askotariko gai eta gertakarien kronika ederrak dira

haren lanak. Bere garaiko emakume gehien antzera, ordea, plaza publikoan jarduteko aukerarik ez du izan. Luzia Goñiri egindako omenaldi txiki honek, beraz, bertsogintzaren alde lan isilean aritu diren emakume guztientzako aitortza ere izan nahi du.

Transmisio arloan egiten duten lana saritu eta ikusarazi nahian, Nafarroako gaztetxoek eta helduen bertso eskoletako kideak izanen dira txapela ez den gainerako sariak emanen dituztenak.

BORTZIRIAK

Euskara ikasleentzako beka deialdia onartu berria

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak onartu berri du euskara ikasten ari direnentzako beka deialdia 2017 urterako. Iaz hasitako bideari jarraituz, beka sistema honen bidez Bortzirietako herritarrek euskara doan ikasi ahaliko dute.

Deialdi berri honek 2017an euskara ikas-taroren bat hasiko duten ikasle guztientzat balio du. Lehen sei hilabeteetan ikastaroren bat egin dutenek edo egin asmo dutenek eskaerak apirilaren 4a baino lehen egin behar zituzten, euskara mankomunitatean bertan. Udako ikastaroen kasuan edota 2017-2018 ikasturtean matrikulatzeko asmoa dutenen kasuan eskaerak egiteko bertz epe bat izanen dute: urriaren 13ra bitartean.

Edozein kasutan, informazio xehea, deialdiaren oinarriak edota aurkeztu behar den dokumentazioa eta inprimakiak mankomunitatearen web orrian aurki daitezke (www.bortzirriak.eus), eta edozein zalantzarako bertara deitzen ahal da (948 634 125).

Iaz, mankomunitateak euskara ikasleentzako beka sistema unibertsala eta doakoa ezarri zuen. 2016-2017 ikasturterako 71 euskara ikasle egin zuten beka eskaera.



**BERA
INFORMATICA**

Zalain industrialdea, 4
31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 630 132
info@berainformatika.com

Gestel

ZAUDEN TOKIAN ZAUDELA, INTERNETEO KONEXIO AZKARRA ESKURA DEZAKEZU

Baztan-Bidaso aldean internetera konektatzeko zenbait arazo zeudela ikusita, Gestel enpresarekin harremanetan jarri zen **Bera Informatika** enpresa. Bien artean garatu dute eskualdeko behar guztietara egokitzen den irtenbidea; KONEXIO SIMETRIKO ULTRALASTERRA.



JAVIER UBIRIAK, Bera informatikako arduradunak, azaldu ditu sistema honen nondik norakoak.



JAVIER UBIRIA
Bera informatika

Nafarroako
Mendialdean
sistema honen
banatzaile
ofizialak gara.

Zein da sistema honen oinarria?

Irrati uhinak eta zuntza bateratzen dituen sistema da. Horretarako, bailarako puntu estrategikoetan, zuntz optikoa iristen den tokiekin konektatzeko antenak instalatu ditugu.

Antena hauetara konektatzeko erabiltzen diren etxeetan antena paraboliko bat jartzea nahikoa da. Bi antena horien arteko distantzia txikia izaten denez eta zuntzera berehala konektatzen garenez, 100 Mb arteko konexio-abiadura lortzen dugu, datuak igotzeko zein jeisteko.

Baserri batean herrian baino konexio hobea egon liteke?

Teknologia berri honi esker, herrigunetik kanpo bizi direnek urtetan izan dituzten oztopoak gaituztu ditugu. Baserri aunitz mendiko kaxkoan daude eta gure antenekin parez pare geratzen dira. Tartean oztoporik ez egoteak, erraztu egiten du komunikazioa. Herri-gune batzuk, ordea, zokoan daude, mendiz inguratuta eta horrek antena estrategiko hauek ongi ez ikustea eragin dezake eta komunikazioa oztopatu.

Zer egin liteke kasu horietan?

Herri-gunea eta antenak lotzeko nodo batzuk jartzen ditugu, errepikagailuen antzerira lan egiten dutenak. Horrela ikusgarritasun arazoak gaituzten dira eta oztopoak saihestuta, uhinak arazorik gabe iristen dira.



Zein onura ekar ditzake teknologia berri honek?

Nire ustez, mugarrizko izanen da. Negoziorako aukera berriak sortzen dira eta enpresa berriak ere erakarri ditzake. Ikastetxeendako ere hagitz baliagarria izanen da, gure seme-alaben eskura hiri handietako ikastetxeek dituzten erramintak jartzen direlako. Eta turismo arloan ere baliagarria da, turistek geroz eta garrantzia handiagoa ematen baitiote internet zerbitzuari. Landetxe eta hotelak zerbitzua eskainita, konpentsaziaren maila berean egoteko aukera lukete.

BAZTAN-BIDASOA

GIZARTEA → MAIATZAREN 12RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

Euskaraz Blai eta Udaleku Ibiltaria prest dituzte Arantzako eta Beintzako aterpeek

Lehen aldiz, 14-17 urtekoek kontrabandoko bideetan lotuko dituzte aterpetxeak

TTIPI-TTAPA

Abian da Arantzako Aterpeak eta Beintzako Aterpetxeak antolatuturik, eta Baztan-Bidasoa Turismoa Elkargoaren laguntzaz, gaztetxoaren artean euskararen erabilpena suspertzeko Euskaraz Blai 2017 udalekuen kanpaina. Baita aurtengo nobedadea izanen den Udaleku Ibiltariaren kanpaina ere.

Julen Egaña Euskarazko Udalekuen zuzendariak Bertzen martxoaren 17an egindako aurkezpenean azpimarratu zuenez, helburua euskarara aisialdian erabiltzea da. Kezkatuta ager-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel Albisu, Xabi Zugarramurdi eta Julen Egaña, udalekuen aurkezpenean Bertzen.

tu zen, D ereduko matrikulazioak gora egin duen arren, euskararen erabilera kasu aunitzetan eskola eremura mugatzen delako. Zuzendariarekin batera, Beintzako Orbela aterpeko Mikel Albisu eta Arantzako Aterpeko Xabi Zu-

garramurdi izan ziren aurkezpenean.

EUSKARAZ BLAI 2017

Aurtengoa zazpigarren edizioa izanen da. Guztira 640 plaza eskainiko dira bi aterpetxeetan banaturik eta adin multzo ezberdine-

tan antolatuturik. 2006-2009 urteetan jaiotako gazteak multzo batean eta 2003-2005 urteetan sortutakoak bertze batean. Aurten gainera uztaleko kanpalekue- tan parte hartu nahi dutenek plaza bermatuta izanen dute.

Kanpalekuen iraupe- na astebetekoa da eta denbora horretan, neska-mutikoek hainbat ekintza egingen dituzte.

UDALEKU IBILTARIA

Aurten bada bertze berrikuntza bat: Kontrabandisten Bidea. Udaleku ibiltaria. 14-17 urteko gazteei zuzendua eta XX. mendean kontrabandoko bideetan barna egingen dena.

Ibilaldian Arritxulo (Oartzun), Arantzako Aterpea eta Beintzako Aterpetxea elkartuko dira, eta naturarekin lotu- tako hainbat jarduera ere prestatu dira. Aben- turaz, kirolaz, naturaz eta histori- az betetako eskaintza honetarako 80 plaza daude.

Euskaraz Blai Udalekue- tan zein Udaleku Ibiltari- an izena emateko epea zabalik da. Maiatzaren 12ra arte lu- zatuko da.

BORTZIRIAK, MALERREKA ETA BAZTANGO EUSKARA ZERBITZUEK

Turistei eskualdeko hizkuntza errealitatea berri emateko esku-orria argitara

TTIPI-TTAPA

Baztango, Bortzirietako eta Malerrekako euskara zerbitzuek elkarlanean eskualde hauetara datozen turistentzako eta bisitarietarako argitalpena prestatu dute eskualdean euskarak duen presentzia nabarmentzeko eta turistei euskarara hurbil daitezen gonbidatzeko.

Eskualde hauetako promozio turistikoa lantzen denean, bertako paisaia, baliabideak, kultura, ohiturak eta tokiak kon-

tuan hartzen dira. Baina ez da berdinduz jokatu hizkuntzarekin, eta euskara ere bada Baztan, Malerreka eta Bortzirien marka. Gabezia hori aurre egin nahian hiru eskualdeetako euskara zerbitzuek, Uraren Bailarak eta Baztan-Bidasoa Turismo Elkargoaren laguntzarekin, argitalpen bat banatuko dute bisitarien artean.

Argitalpenak Baztan, Bortziria eta Malerrekako hizkuntza errealitatearen berri ematen duen azalpentxo bat da-

kar euskaraz, gaztelera, frantsesez, katalanez eta ingelesez. Azalpen horretan azpimarratzen da eskualde horietan euskara hizkuntza bizia dela, eta horrez gain bisitariari ahal duten neurrian euskara erabiltzeko gonbita egiten zaie. Horretarako oinarritzko hiztegi bat erantsi da, gaztelera, frantsesa, katalana eta ingelesez itzulita. Horrekin batera QR kode bat agertzen da, www.hiztegitxoak.eu orrialde- ra eramaten duena; bertan euskarako hiztegia hizkuntza gehiagotara itzulita aurki daiteke (eta alderantziz).

Argitalpen honen 25.000 ale egin dira, eta Aste Santutik aurrera egonen da hiru eskual-



deetako turismo bulego eta toki turistiko garrantzitsuetan. Edozein kasutan, turismo arloko edozein eragilek argitalpenaren ale batzuk eskuratu nahiko balitu, nahikoa luke hiru eskualdeetako edozein euskara zerbitzuekin harremanetan jartzearekin.

OSPAKIZUNAK → MARTXOKO AZKEN ASTEBURUA

Asteburu Kulturala bikain joan da

Migel Anzizar eta Koro Elizondoren gaztak irabazi du lehiaketa

Maidar PETRIRENA

Bertze urte batez, giro ederrean joan da aurten ere Asteburu Kulturala.

Ortzirale arratsaldean haurrek eman zioten hasiera Asteburu Kulturalari txokolatada eder batekin eta Jokulandiaz gozatzeko aukera izan zuten. Gero, Ulibeltzak elkartera bildu ziren ikusle guztiak *Alicaté (la gramola del amor)* ikusteko, aditzeko eta muxu aunitz emateko aukera izan zen. Ondotik afari autogestionatu ederraz gozatzeko aukera izan zen. Bustitzen mus txapelketa izan zen eta 6 bikotek parte hartu zuten. Irabazleak Jon Mitxelena eta Mikel Etxekolonea izan ziren eta bigarrenak Agurtzane Zubieta eta Gorka Arretxea. Larunbatean, eguraldi txarrari aurre eginez, gutti batzuk elkartu baziren ere beraien mendi ibilaldia egin zuten Suspirora, bertako bordan gosaltu eta buelta. Goiz eta arratsaldean haurrek berriz ere Jokulandiak ekarritako jostailuetan ibili ziren. Arratsaldean txin-txon (12 parte-hartzaile) eta mus txapelketa (6 bikote) jokatu ziren Fonda ostatuan.

Txintxonean irabazlea Jon Aranbillet izan zen, bigarrena Unai Bereau eta hirugarrena Maxux Maritorea. Musean, berriz, Jaione eta Josune Otxandorena izan ziren irabazleak eta bigarrenak Luzio Irazoki eta Iker Espelosin.

Ondoren trikipoteoan ibili ziren herrian barna eta ondoren 50 lagunek Ariztigain kanpinean afaria eta juerga egiteko aukera ederra izan zuten.

X. ARTISAU FERIA ETA GAZTA LEHIAKETA

Igandean, X. artisau feria eta gazta lehiaketa frontoian egin zen. Herriko dantzariak beraien emanaldia eskaini zuten frontoi atzeko aldeko plazan. Arratsaldean berriz ere feria ikusteko aukera izan zen. Guztira 25 artisau zeuden, beraien artean Sunbillako talogileak. Hauek lan bikaina egin zuten egun guztian, zeukaten guzti guztia salduz. Arratsaldeko 7etan zare eder baten zozketa izan zen eta gazta lehiaketaren sari banaketa egin zen. Gazta lehiaketan lehenengo saria, iaz bezala, Migel Anzizar eta Koro Elizondorenarentzat izan zen. Bigarrena, Estamoa baserriko Maxux Maritorenarena, eta hirugarrena Xibolako Xanti Espelosinena. Zare ederra berriz Eneritz Lantzek eraman zuen. Guztira 1000 boleto saldu ziren.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA ETA IZARO ALZURI

Giro bikaina izan da aurten ere Asteburu Kulturalan.



ARGAZKIAK: MAIDER PETRIRENA

Herriko neska-mutikoak Haur eta Gaztetxo kantu jaialdian

Lesakako Harriondoa kultur etxean izan zen Haur eta Gaztetxo kantu jaialdian parte hartu zuten herriko haurrek. Jendetza bildu zen kantatzera eta ikustera. Ttikienek *Ahoa bizi*, *Belarriak prest* kantatu zuten eta koxkorragoek Huntuza taldearen *Herri Unibertsitatea*. Mendaur triki eskolarekin ere parte hartu zuten bertze batzuk, Pirritx eta Porrotxen *Poutporri* kantatu zuten.

DONEZTEBE

GIZARTEA → BAZTAN-BIDASOALDEKO ERABILTZAILEENTZAKO

Ogasuneko bulego berria irekiko du Gobernuak herrian

Momentuz, hiru hilabetez bakarrik egonen da zabalik

Marga ERDOZAIN

Bulegoa Merkatarikarrikan (6. Zenbakian), Nasuvinsa bulegoaren ondoan kokatua dago eta goizeko ordutegia izanen du, goizeko 8etatik 3etara. Nahiz eta, momentuz, hiru hilabetez bakarrik zabalik egon, bulego honetan ogasunarekin egin beharreko gestioak egiteko aukera izanen da Iruñera joan gabe. Uztailera arte Baztan, Bortziriak eta Malerrekako erabiltzaileak Doneztebeko bulegora hurbiltzen ahalko dira. Bertan hiru langile izanen dira, bat harrera ematen eta bertze biak eskatzaileen gestioak burutzen. Nafarroan, Iruñekoaz gain, Tuteran, Lizarran eta Tafallan ere bulegoak badira.

Bestetako kartel lehiaketa martxan

San Pedrotako bestak iragartzeko Udalak lehiaketa antolatu du. Lehiaketa honetan parte-hartze idekia da eta interesatuek apirilaren



UTZITAKO ARGAZKIA

2016an herrian jaiotako haurrek badute beraien zuhaitza

Hegoi Arnedo Mitxelena, Naia Esarte Elizalde, Uxuri Esarte Juanotena, Aiora Legarra Garcia, Irai Lopez Oteiza, David Cezar Pop, Luca Serban Raileanu, Maria Ilina Raileanu, Andoni Rey Hurtado, Javier Santiso Juanena, Aitor Villamea Saralegi eta Arane Otermin Ortega dira 2016an Donezteben jaiotako umetxoak. Martxoaren 26an Udalak, herritar guztien izenean, txikitxo hauei ongi etorrria egin zien, urteroko ohiturarekin jarraituz, hau da zuhaitz bana landatuz. Landaketaren ondoren hamaiketako ederra izan zuten eta familia argazkia ere egin zuten. Haritza ongi zaindu, zuen bizi proiektua eta ametsak zaintzen dituzuen bezala!

28ra arte izanen dute lanak aurkezteko aukera. Formatua eta teknikari dagokionez, honako oinarriak errespetatu behar dira: lanak A3 tainan inprimatuko dira (29,7 x 42,2 zm.) eta formatu digitalean aurkeztu beharko dira, 240 gutxienezko erresoluzioaz. Nahitaez, Doneztebeko bestak, ekai-

Ba al zenekien

Estresa prebenitu eta gainditzeko 30 orduko ikastaroa maiatzaren 9tik ekainaren 6ra egingen dela Herrigunean edo Herriko Ostatuan, astearte eta ortzegunetan (16:30-20:30). Doan izanen da. Izen emateko 948 281200ra deitu.

naren 28tik uztailaren 2ra testua izan behar dute. Pertsona bakoitzak lan bakar bat aurkeztu ahal du. Lana sinatu gabe entregatuko

du eta lanarekin batera sobre itxi batean egilearen izen abizenak eta kontakturako telefonoa edo posta elektronikoa agertu beharko dira.

AGENDA

Herri lanak

Udalak herri lanekin segitzen du eta aipatu behar da hilabete honetan espaloien moldaketek segida izanen dutela. Dagoeneko Santa Luzia eta Udaletxeko plaza moldatu dira baita Merkatarikarrikan ere. Bertze aldetik, aipatu behar da igerilekuan moldaketa batzuk egin direla uraren galerak ekiditeko.

Inauterietako irabazleak

2016ko inauteriek argazki eta bitxikeria anitz utzi dizkigute. Urtero antolatzen den lehiaketaren emaitzak honako hauek izan dira. Brasilgo inauterietako orga taldearen saria irabazi du (bildots ederra) eta moztorrik hoberena (otordu ederra) berriz, Barbie eta Ken moztorroaren tizat izan da (Juan Telletxea, Jose Luis Arozena eta Xanti Belarra). Zorionak eta sariekin disfrutatuz.

Herriko sei talde laxoa txapelketan

Udaberriarekin batera laxoa txapelketa loretu da. Sareak, pilotak, guanteak, plazak... dena prest aurtengo txapelketa bizitzeko. Apostuak ere! Baietz txapela Doneztebera ekarri. Hamarretik sei talde herrikoak dira. Gainera aurtengo finala Doneztebeko Bear Zanan jokatu da, abuztuaren 5ean.

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

ORBELA
BEINTZAKO OSTATUA

Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN
orbela@alberguesnavarra.com
www.orbela-beintza.com

KULTURA → APIRILAREN 10ETIK 12RA

Liburuaren Eguna ospatuz hainbat ekitaldi

Haizea Loira
ipuin kontalaria
izanen da

TTIPI-TTAPA

Aste Santua baino lehen agendan Liburuaren Eguneko ospakizunak azpimarratzen ahal dira. Eguna apirilaren 23a bada ere, Aste Santuko oporrak direla eta, apirilaren 10etik 12ra ospatuko da. Apirilaren 10 eta 11n San Miguel Eskolako haur hezkuntza-

ko eta LHko lehenbizi-ko eta bigarren mailako ikasleek ipuin kontaketa saioak izanen dute Haizea Loiraren eskutik. Osotara Loirak 5 emanaldi eskainiko ditu Doneztebeko Liburutegian. Apirilaren 12an, Haizea Loirak saioa Askin Haur eskolan eskainiko du eta Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoek *Izeba Teklaren* emanaldiaz gozatzeko aukera izanen dute. Emanaldia Xa-



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Errekako judo taldea inoiz baino indartsuago

Isilean gogor entrenatzen dabilta Errekako judo eskolakoak eta urtero bezala hasiak dira lehian. Infantiletan Aritz Zulaika Valentziaraino joanen da infantil mailako Espainiako txapelketan parte hartzeko. Maila berean, hirugarren fasea jokatzekoa zuten Saioa Atxalandabasok eta Eñaut Setuainek. 9 mutil eta 8 neska osatutako benjamin taldeak zortzi domina ekarri ditu Nafarroako Kirol Jokotatik: Uxue Ibarra, Aimar Sanchez eta Gaxuxa Zelaiek urrea irabazi dute. Alaine Huarte eta June Francok zilarra; Unax Zulaika, Ioana Beola eta Julen Lazkanok Brontzea irabazi dute. Zorionak! Akitzeko, alebinek bi proba egin dituzte eta azkenekoa falta zaie, hemendik bi astetara burutuko dutena. Lehenengoan Markel Jabalerak urrea irabazi zuen eta Iban Atxalandabaso hirugarren gelditu zen. Nesketan, Iturengo Iraide Alberro ere hirugarren gelditu zen.

bier Lizasok eskainiko du eta zinemari burutuko da goizeko 11etan.

Zine emanaldiak dagoenez, aipatu behar da apirilaren 23an aur-

tengo denboraldiko azkeneko saioa izanen dela.

BEROPEL
egurrezko pelleta
ECHEVESTE HNOS. SL

T. +34 948 637 232 • +34 618 264 654

31770 LESAKA (Nafarroa) • Fax + 34 948 637 250

info@echevestehermanos.com
www.echevestehermanos.com

EN plus A1
ES 025

ITUREN

GIZARTEA → GURASOEI ZUZENDUA

Oinetako erreflexologia ikastaroa antolatu dute

4 hilabete eta 7 urte arteko haurrei emateko

Arkaitz MINDEGIA

Apirilaren 3, 10, 17 eta 24an eta maiatzaren 8an gurasoei zuzenduta oinetako erreflexologia haurrei eman ahal izateko 12 orduko ikastaroa eskainiko du Yolanda Monterok udaltxeko sabaian.

«Erreflexologia tera-

pia gisa, gure seme-alaben osasuna zaintzeko. Gure seme alabengana hurbiltzeko modu onuragarri bat da beraien hanka eta zure eskuen artean sortzen de ukipenari esker. Egunero-kotasunean sortzen ahal zaien edozein ondorez edo ezinegon nola tratatu ikasten da», irakasleak aipatu duenez.

Lehen saioan erlajazioa eta nerbio sistema landuko dira, bigarren inmunditate sistema, hirugarrenean lise-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mendaur Trikitixa Eskolakoak Lesakako Haur kantari jaialdian

Mendaur trikitixa eskolako ikasleak Lesakan martxoaren 25ean ospatu zen Nafarroako haur kantari jaialdian parte hartu zuten. Giro ederrean pasatu zuten larunbat arratsaldea inguruko bertze abeslariarekin batera eta saio bikaina egin ere. Segi horrela kantari bikainak zarete!



Ba al zenekien

Plazan ez aparkatzeko piboteak eta kartelak jarri berri dituela Udalak

Abarun udalekuak

Aurtizko Abarun aterpeak sormen bidaia udalekuak antolatu ditu. Ekainaren 27tik uztai-

laren 2ra LH3, 4 eta 5ekontzat aukera eta uztailaren 2tik 5era LH 2, 3 eta 4. Eskaera maiaztaren 31ra arte egin daiteke (948450067).

GIZARTEA

IGANTZIKO IRRISARRI LAND ABENTURA PARKEAN

Baztan-Bidasoaldeko bizilagunek ere deskontuak izanen dituzte sartzeko

TTIPI-TTAPA

Igantzikako parketik hurbilen dauden herrietako auzokideek instalazioetatik nahi duten bakoitzean goza dezatela nahi du IrriSarri Landek, eta horregatik, Bortzirietako bizilagunei lehenago eskaintzen zitzaizkien deskontuak izanen dituzte Nafarroako Bidasoaldeko gainerako eskualdeetan bizi direnek ere. Horiez gain, Ttipi-Txartelaren jabe diren (Ttipi-Ttapa aldizkariaren harpidedunak) pertsona guztiek ere badute abantaila hori.

Beraz, eskaintza honako

herri hauetako biztanleentzat da: Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Bera, Almandoz, Berroeta, Aniz, Ziga, Oronoz, Arraioz, Irurita, Gartzain, Elizondo, Elbete, Lekaroz, Arizkun, Azpilkueta, Errazu, Amaiur, Beintza-Labaien, Donamaria, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oitz, Saldias, Doneztebe, Sunbilla, Urrotz, Zubieta, Legasa, NARBART, Urdazubi, Zugarramurdi eta Oiategi.

BERTZELAKO DESKONTUAK

IrriSarri Landeko arduradunek, halaber, hainbat entitatekin egin dituzte lankide-

tza-hitzarmenak, entitate horietako bazkideek ere abantailak izan ditzaten resortean sartzeko, hala sarreretan eta esperientzietan nola hiru ostaluetako edozeinetan. Adibidez, Nafarroako gazte-txartelaren jabe guztiek deskontuak dute sarreretan eta aterpetxean. Hona hemen parkearekin akordioa egin duten entitateak: ADACEN, AEDONA barnean dauden Iruñeko kirol klubak (Amaya, Larraina, Anaitasuna, Donibane, Natación, Tenis, Oberena, Echavacoiz, Rochapea, eta Txantrea), Unibertsitate Publikoko ikasle ohi-



ak, Ausolan, BTT Kirol Klubak, Gazte Txartela, eta FNAC Hirukide (familia ugariak) Volks-wagen. Haietako bakoitzak zer deskontu dituen jakiteko, galdetu entitate bakoitzean.

GIZARTEA → HIRU-LAU IZAN DIRA DAGOENEKO

Normalizat hartzen ditugun eragindako suteek arriskua dakarte berekin

Gobernuari baimena eskatu eta egin daitezke, baina maiz gauez pizten dituzte

Joseba URROTZ

Garai hontan egiten da larre edo bazkalekuen erretzea, ustez sasiak galdu eta bazka izateko asmoz. Erreketa horiek kontrolpean egin daitezke, Gobernuari baimena eskatu, jendea bildu eta lekua presta-

tuz. Baina aurten maiz xamar gertatzen ari da sutea gauez sortzen dela, alegia, itxuraz gordeka piztua. Herrian bertan nabaritu izan da hori, 3-4 aldiz guttienez. Azkeneko aldian, goiz aldera etorri ziren suhiltzaileak eta kamioia suteraino ezin ailegatu ibili zenez, helikopteroaren beharra ere izan zen, oinezkoek gain.

Ikusgarria zen nolako maniobrak egiten ziotuen honek arbolak kaxkoak akitu beharrean, ez da broma, bizia arriskatuz ibilki baitira.



ARGAZKIA: JOSEBA URROTZ

Helikoptero gidariekin maniobra ikusgarriak egin behar izaten dituzte sua itzaltzeko.

INGURUKO TOKIRIK BISITATUENA

Eguraldia goxatu orduko hasiak dira Leurtzako urtegi bazterrak jendez betetzen

J. URROTZ

Honezkero nabaria da, azken bolidan, eguraldi ona agertu orduko jendetza nola datorren Leurtzako urtegiak, behar bada gero eta gehiago, ez baita asteburuetan bakarrik, astegunez ere ikusten dira au-

toak pasan banaka banaka. Eta are gehiago, eguraldi petral xamarakin ere agertzen dira batzuk.

Zaindariak hasiak dira honezkero lanean, eta beharko gainera, hauen faltan agudo nabaritzen baita zinkinkeria eta hondamen errestruak.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Udaberriko kolekzio berria!

Edredoi nordikoetan espezialistak

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ZUBIETA



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA
Itturri kantari, Berako final aurrekoan. Dotore aritu da txapelketa osoan eta bere hirugarren finalean izanen da.

KULTURA → LARUNBATEAN IRUÑEKO ANAITASUNAN

Nafarroako Bertsolari txapelketaren finalean kantari ariko da 'Itturri'

Hirugarren finala izanen da beretzat

Fermin ETXEKOLONEA

Ander Fuentes *Itturri* herriko bertsolariak Nafarroako Bertsolari Txapelketako bere hirugarren finalean kantatuko du apirilaren 8an, larunbat arratsaldeko 5etatik aitzinera Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Txapelketa polita osatu du Leitza bizi den bertsolariak eta Beran jokatu zen final aurrekoan lortu zuen finaleko txartela. Aipatzeko da bost lehenbizikoaren artean sartuko babiliz, Euskal Herriko txapelketan parte hartze-

ko txartela ere lortuko lukeela. Zorionak eta animo!

Heriotzak

Herrian bizi zen Juli Hualde, Errenterian bizi zen Anuntxi Babaze eta Iruñean bizi zen Nati Arbelaiz denboragutxiren barrenean hil dira. Bolada txarra pasatzen ari da herria. Dolu-minak familia guztieri.

Korrika joan da

Korrikaren aitzakian berendua izan zen apirilaren 3an estalpean. Petoak egiteko tailerra ere egin zen eta Korrika txikia herrian barna. Udalak eta gazteek hartutako 992. kilometroa egin zuten 21:40ean.



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Herritarrak minbizia duten haurren aldeko zumba jaialdian

Adano elkartearen aldeko zumba jaialdian zubitar gazte kuadrilla ederra izan zen martxoaren 18an Elizondon. Bi orduz gelditu gabe aritu ziren dantzan Iker, Aritz, Jone, Nahia, Lorea, Saioa, Ixone, Naroa, Garazi, Naiara, Luaia, Ane, Meseret eta Haizea. Zorionak zuen borondateagatik!!!



ARGAZKIA: IZASKUN ZUBIALDE

Buruhandiak egiten ikasteko tailerra

Udalak antolatuta buruhandiak egiten ikasteko tailerrean hamar lagun elkartu dira. Bukatu ondoren, herrian barrena buruhandiak jantzita laisterka ibiliko dira. Nolakoak izanen diren jakiteko, ordura arte itxaron beharko!!!



ARGAZKIA: EDORTA A. MURUA

Igeldoko Lau taldearen kontzertu bikaina Errandonean

Igeldoko Lau taldeak kontzertua eskaini zuen martxoaren 24an Errandonea tabernan. Donostialdetik ere hurbildu zen jendea. 40 lagun bildu ziren afarian, bertakoak eta Gipuzkoaldekoak eta besta polita egin zuten.

HERIOTZA → MARTXOAREN 13AN HIL ZEN, 89 URTEREKIN

Azken agurra eman zaio Kontxita Gartziarenari

Hernanin bizi arren, ekitaldi guztietan parte hartzen zuen

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 13an hil zen Kontxita Gartziaren, 89 urte zituela. Biharamunean lurperatu zuten hilerrian, elizan emandako mezaren ondotik. Kontxita Gartziarena

Ezkurran jaio zen Txurdineko borda baserrian 1927an, zazpigarrena 12 senideen artean. Ama Joakina (Leitzakoa) eta aita Joakin (Ezkurra-koa) ziren. Mariezkurreneko bordara ezkondu zen 1959an Martin Noblerekin eta bertan jaioak dira bi alaba zaharrenak (Pili eta Kontxi). Ezkurako herrira jeitsi ziren 1964an eta beste 3 seme-alaba izan zi-



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Kontxita Gartziarena zena, herriko adiskideekin.

tuzten (Arantxa, Martin eta Mikel).

Ezkurran bizi izan zen senarra hil arte 2005ean eta geroztik Hernanin alabarekin.

Bere herrira eta etxera etortzen segitu du aseturero, 89 urte egiteko zituenean hil den arte, ustekabea, hutsunea eta atsekabea

Ba al zenekien

22 herritar bildu zirela martxoaren 20an Udaletxean informatika-enpresa batek emandako hitzaldian. Gaiak interesa piztu du eta interesgarria litzateke ludotekan interneterako sarbidea izatea.

utzi. Goian bego.

Ezkurako jubilatuek omenaldi xume bat eskaini nahi izan diote, Kontxita bere adiskideekin ageri den argazki hau

argitaratuz. Izan ere, azken urteetan taldeak eskaintzen zituen meza eta bazkari guztietara azaltzen zen. Doluminik sentituena familiari.

ETXEBIZITZA BERRIAK DONEZTEBE

2 eta 3 gelako etxebizitzak terrazarekin



KOKAPENA
MOURGUES IBILBIDEA



135.000€tik aurrera
Informa zaitez

- ✓ Lehenengo solairuak TERRAZA-SOLARIUM-arekin
- ✓ Ekialde, hegoalde eta mendebalderantz begira
- ✓ Goi mailako aislamendu termiko-akustikoa eta efizientzia energetiko gorena
- ✓ Berogailu sistema mistoa galdara eta AEROTHERMAL energia berriztagarriarekin
- ✓ Trastelekua eta garajea
- ✓ Sukalde ornitua (aukeran)

Lokal komertzialak ere baditugu!



EZKAIN ERAIKUNTZAK
Inzakardi kalea z/g | DONEZTEBE

629 951 170



BERTIZARANA

GIZARTEA → APIRILAREN 9AN

Bertiz Abentura Park berritua irekiko dute igandean

BKZ-Nafarroa Abenturak sei tirolina eta zuhaitzen gainetik kilometro batean 60 joku egiteko aukera eskaintzen du

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 9tik aitzinera Bertiz Abentura Park berrituaz gozatze-ko aukera izanen dute bisitariak. BKZ-Nafarroa Abenturak Narbarten ditu instalazioetan hainbat berrikuntza egin ditu, merkatuko segurtasun sistema berrienak jarritz. Kilometro bateko ibilbidean, 6 tirolina eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Segurtasun sistema aitzindaria ezarri dute Narbarteke parke berrituan.

zuhaitzen gainetik 60 joku desberdin egiteko aukera eskaintzen dute. Europako araudira egokitutako parkea izanen da aurrerantzean eta Euskal Herrian 'Bizitzako lerro jarraia' sistema erabiliko duen lehenbizikoa izanen da. Sistema berri honi es-

ker, jardueran parte hartzen duen pertsona hasmentatik bukaerara arte segurtasun kableari beti lotuta egotea ziurtatzen da. Hiru urtetik goitiko edonork egin dezake jarduera hau eta hori dela eta zailtasun desberdinetako ibilbideak diseinatu dituzte.

Parkea 10:30etik 14:00etara eta 15:00 -etik 18:30era egonen da zabalik. Dena den, aldeztu aurretik erreserba egitea gomendatzen dute tokia izatea ziurtatu nahi bada. Erreserba astelehenetik ortzi-larera egin daitezke 646 755760ra deituta.

LEGASA

GIZARTEA → MARTXOAREN 12AN

'Restaurantes del Reyno' elkartean sartu da Arotxa

Nafarroako Ardo Gorriaren eta Barazkien bederatzigarren Jardunaldiak ere Legasako jatetxean aurkeztu zituzten

TTIPI-TTAPA

Legasako Arotxa jatetxea *Restaurantes del Reyno* elkartean sartu berri dela baliatuz, martxoaren 22an bertan egin zuten Nafarroako Ardo Gorriaren eta Barazkien IX. Jardunaldien aurkezpena. Martxoaren 27tik apirilaren 30era barazki ezberdinak oinarri dituzten me-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Sukaldariak eta elkarteko ordezkariak, Arotxa jatetxearen atarian.

nuak eskainiko dituzte jatetxe hauetan, ardo gorri nafarrak bustiak.

Jardunaldien aurkezpenean, *Restaurantes del Reyno* elkarte-ko presidente den Iñaki Idoatek Arotxa jatetxearen ibilbidea go-

raipatu zuen, eta plaka bat eman zien Luis Miguel eta Pedro Lakar anaiei.

Legasako Arotxa jatetxearekin batera, Iruñeko Europa, Rodero eta Alhambra, Agoizko Beti Jai, Gorraizko Cas-

tillo de Gorraiz, Urdanizko El Molino, Tafallako Túbil, Tuterako Treintaitrés eta Cintruénigoko Maher jatetxeetan eskainiko dituzte jardunaldi hauetako menuak, 40 eta 50 euro arteko prezioan.



**Prezio zoramena Biok arropa-dendetan!
Marka hoberenetan gizonezko arropa**

5€/10€ / 15€ / 20€-tan

Apirilaren 14tik 17ra

BIOK

IBARDIN DANTXARINEA VALCARLOS

Guess Salsa Scotch&Soda FreemanT-Porter GarciaJeans Edc JapanRags Diesel
HugoBoss BrunoSaintHilaire Gant Schott Blend AntonyMorato Solid PaulMartins
Globe Quiksilver Billabong RipCurl Vans Oxbow Astore LeCoqSportif ...



2017ko UDABERRI-UDAKO MODA

Negua agurtu eta luzatu da eguna. Eguzki izpien babesean, jazkera eta orrazkera aldatzeko sasoia heldu da. 2017ko udaberri-udako moda joeren laburpena osatu dugu: aurreko urtetako joera batzuei eutsi, bertzeak birmoldatu eta proposamen berriak egin dituzte adituek.



Santiago 88
ELIZONDO
T. 948 580 939
info@ipingi.es

ARROPA eta OSAGARRIAK www.ipingi.es

OSPAKIZUNETARAKO JANTZIAK

EMAKUMEZKOAK UDABERRI-UDARAKO JOERAK

Begi-kolpe batez erabaki ohi dugu zerbait gustuko dugun edo ez. Batzuetan, ordea, ezusteko gozoak izaten dira. Horregatik, komeni da denboraldiko joeren berri izan eta aukera berriei atea zabali uztea. Segidan dituzue datozen hilabeteetan karriketan nagusi izanen diren joerak:



Atorrek han eta hemen: Luzeak, laburrak edo soinekoak diruditenak, mauka motzak edo mauka gabeak... atorrek garrantzia hartuko dute eta forma guztietakoak egonen dira modan. Horien artean denima ezinbertzeko oihala izanen da.



Kolore apaletatik bizienetara: Lur kolorea gogorarazten duten jantziak ikusiko ditugu nonahi: kameletik hasi eta berde militarerraino. Bizitasuna berriz, tonu arrosen eta horien eskutik heldu da, oihalak freskura eta alaitasunez tindatuz. Eta loreak, laukiak, lerroak, irudi geometrikoak... ere ez dira faltako, estanpatuak bixi bixiak izanen dira.



Sorbalda agerian: Sorbaldei garrantzia berezia eman nahi izaten diete diseinatzaileek. Horretarako diseinu asimetrikoak proposatu dituzte, sorbalde-tako bat estali eta bestea agerian utziz. Biak bistan ematea ere modan dago eta baita sorbaldetan forma bereziak osatu edota apaingarriren bat jartzea ere.

Handitik ttikira: Poltsa handiak edota horien erreplika ttikiak daude modan; ez dago erdibidekorik. Eta motxilarik ere ez da faltako, dotore zein informalak!



Beola Etxea

VENTA

Ibardin gaina, 30 BERA · T. 948 630 709

www.beolaetxea.com 



**GIZON eta
EMAKUMEENTZAKO
ARROPA**

**UDABERRI-UDAKO
MODA BERRIA
DAGOENeko
ZURE ESKURA!!!**

**OSAGARRI, BITXI,
BOLSA eta
OINETAKOETAN
AUKERA ZABALA**

**LURRINDEGIAN
sekulako eskaintzak!**



**HAUREN ARROPA
3-14 urte bitarteko tailak**

CASUAL W/FRIDAY T/ASUS **BLEND**
Bench. SURKANA **Xti.**
smash! **TIFFOSI**
BASSED **ICHI** **TIFFOSI KIDS**

ARROPA KONFEKZIOAK **MARI CARMEN**



Braulio Iriarte 22 (Antxitonea ondoan)
ELIZONDO - T 948 580 883

IBARROLA

Haurrendako arropa

0-14 urte

Parrokia kalea 6 · Doneztebe
948 450 463

LARUNBAT ARRATSALDETAN IREKIA



HAURRAK KOLORERIK EZ DADILA FALTA!



Naturako kolore bizienak eramanen dituzte soinean etxeko ttikiek. Lorerik ere ez da faltako jantzi, osagarri eta oinetakoetan. Laukiak eta marrak ere aunitz, baina konposizioak osatzeko molde berriak hartu dituzte: lauki handiagoak eta hainbat norabidetan jarritako marrak erabiliz. Berrikuntzen artean, parpail edo bolanteak aipatu behar dira, gona, ator eta soinekoetan. Denima ere ezinbertzekoa da: galtza motzak, jakak, atorrak... Looka osatzeko koloreari garrantzia handia eman nahi izaten diete. Hala, kolore bakarra erabiltzea proposatzen dute edo estiloa mantenduz muturreko koloreak konbinatzea.



OINETAKOAK EROSO BEZAIN DOTORE


Azken urtean oinetakoen artean izar bat bada, horiek zapatilak izan dira. Informal edo formalagoak, etxeko guztien oinak jantzi dituzte eta datozen hilabeteetan ere halaxe izaten segiko du. Horiekin batera, emakumezkoentzat mule oinetakoak, apaingarri koloretsuak dituzten boho estiloko sandaliak eta alpargatak nabarmentzen dira. Material desberdinak oinetako bakarrean konbinatzea ere modan dago: goma, espartzua eta larrua batez ere. Gizonezkoentzat berriz, mokasinak, blucherrak, alpargatak eta larruzko sandaliak gomendatzen dituzte.

NEURRI GUZTIAK BAINU-JANTZIAK
Push-upa dutenak eta neurri haundikoak

Beheko plaza, 10 · LESAKA
T. 948 627 514 · www.kattagorria.com

Virgilio
OINETAKOAK

Larunbat arratsaldetan irekia
FAMILIA UGARIENDAKO %10eko deskontua
Santiago, 32 · ELIZONDO · 948 580 209
www.calzadosvirgilio.com



ZATOZ VENTA PEIORA MODA EZAGUTZERA

3 POMMES BENZI BELLOSTA MORLANS BIMSAK CALVIN KLEIN CONVERSE DELSEY DENIM & SUPPLY DESIGUAL DOCKERS EA7 ARMANI EASTPAK ESPRIT G-STAR HACKETT HELLY HANSEN HILFIGER DENIM I.CODE IKKS JACKS&JONES KAPORAL KOCCA LACOSTE LACOSTE LIVE LEE LEVIS LOLLIPOPS LOREAK MENDIAN MANGO NAPAPIJRI NORTON ONLY ONLY PLAY ORCHESTRA OXBOW PEPE JEANS PROMISE RALPH LAUREN RELISH RIP CURL SAMSONITE SELECTED SUPERDRY THE NORTH FACE TOMMY HILFIGER TRANGOWORLD TRESPASS VANS VERO MODA VIOLETA WRANGLER

PEIO
mode

WWW.VENTA-PEIO.COM

Tel : +34 902 210 800 (es) | 0820 562 267 (fr)

Arnegui | Dantxarinea | Behobia | Landibar | Agus Benta | Ibadin





ORRAZKERAK ITXURALDATZEKO AUKERA



Udaberrian, aitzurak lanean jartzen dira normalean, baina aurten aldaketa aurkako norabidean egitea proposatzen dute: motzetik luzera alegia. Ilea sorbalden gainera arte luzatzen utzita, kizkurtu edo ilea biltzeko joko gehiago ematen du. Ilea tindatzea da bertze aukera; ausartenentzat ile-hori platinoa gomendatzen dute edo sustriak ilunago utzi eta goitik behera argitzen joatea. Gizonezkoendako, luzera desberdinak konbinatu edo albo batean marra ongi markatzea da proposamena. Ukitu informala da bertze aukera; orraztu gabe doazela dirudien arren, ongi aztertua dute ile bakoitzak non behar duen...

GIZONEZKOAK

Emakumezko eta gizonezkoendako jantzietan, desberdintasunak baino parekotasun gehiago aurki ditzakegu azken urteetan. Kirol jertseak ez dira faltako, ezta kamiseta marradunak eta estanpatuak ere, batez ere, irudi tropikalak dituztenak edo vintage itxurakoak. Galtzak zertxobait zabalduko dira, estu-estuak albo-ratuz eta orkatiletarainokoak egonen dira modan. Trajeetan berriz, urdin kolorekoak indartsu datoz, baita zuri edo gris argiak ere.



ZAINDU MAITE DUZUN HORI... ZURE ETXEBIZITZA

25 urte gorako
etxebizitzaren zaharberritzea
Orain laguntza +
%60 arteko dirulaguntzak

Informazioa eskatu

ore

Oficina de
rehabilitación
de viviendas
y edificios

Elbarren 1, bajo. Leitza

948 510 009
www.etxebizitza.nafarroa.eus



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ARKUPEAK

GIZARTEA → MARTXOAREN 16AN

Juanito eta Migel Zabaletak irabazi dute elkarteko mus txapelketa

90 bazkide bildu ziren Doneztebeko finalean

Fernando ETXEBERRIA

Martxoaren 16an Donezteben jokatu zen mus txapelketako finala. Denera, 90 bazkide bildu ziren, 35 bikote elkartzuz. Finalaren antolakuntza dela eta, 32 bikotek jokatu dezaketeenez (32-16-4-2), kanporaketa saio bat egin behar izan zuten sei bikoteren artean.

Eratsun, Oronoz, Ziga, Almandoz, Doneztebe, Goizueta, Leitza, Erratzu, Azpilkueta, Donamaria, Arantza, Ituren, Bera, Etxalar, Igantzi, Sunbilla, Elizondo eta Iruritako bikoteek parte hartu zuten.

Hasierako partidak inongo gora beherarik gabe jokatu zituzten, baina 11:00ak aldera pintxo batzuk jateko atsedenaldi ttiki bat egin eta berriro jokoan hasi zirenean, konturatu ziren zortzi bikote egon beharrean bederatzi zeudela. Kontua da, finalaren hasierako partidak jokatu zituen bikoteetako batek, bi par-

SAILKAPENA	
1	Juanito Zabaleta Migel Zabaleta (Leitza)
2	Andres Landa J.C. Agerrebere (Almandoz)
3	Domingo Aranburu J.M. Olagarai (Etxalar)

tida jokatu zituela hiru jokatu beharrean. Segidan topatu zuten irtenbidea. Marcelino Altzu eta Juan Migel Benitok osatutako bikotea partida bat gehiago jokatzeke prest agertu zen, final-laurdenetara pasatzeko. Bikote hau laugarren postuan geratu zen azkenean eta antolatzaileek beraien jokae- ra eskertzeko opari ttiki bat eman zieten.

Bazkalondoan egin zen sari banaketa. Leitzako Juanito Zabaleta eta Migel Zabaletak jantzi zuten irabazleen txapela. Bigarren postuan geratu ziren Andres Landa eta Jose Celestino Agerrebere almandoz-tarrak eta hirugarren izan ziren Etxalarko Domingo Aranburu eta Jose Maria Olagarai.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Museko irabazleak, laguntzaileak eta finalistak.



UTZITAKO ARGAZKIA

53 mendizale bildu dira Etxalarko irteeran

Martxoaren 21ean 53 mendizale elkartu ziren Etxalarren barna mendi itzulia egiteko. Lau orduko ibilaldia egin zuten inguruko txoko ederrak bisitatzuz: Santa Kruz ermita, Mugerdi, Xamarko, Lizaia eta Mendiko Harri. Ibilaldiaren ondotik, indarrak hartzeko, Antoniok prestatutako bazkari goxoaz gozatzeko aukera izan zuten eta bazkalondoa borobiltzeko musikarik ez zen falta izan. Apirilean bestelako mendi irteerak izanen direnez, hurrengo ateraldia maiatzaren 9an izatea adostu zuten, Leitzako plazatik 09:00etan abiatuta.

Ba al zenekien

Martxoan 347 bazkide joan zirela Zarautz eta Aginaga sagardotegiko irteerara. Orain arteko kopuru altuena da.

eureka!
zientzia
museoak, dibertsioa
eta zientziaren ezagutza
primeran konbinatzen dituen
plan ezin hobea eskeintzen dizu.

Zortzi areto desberdinetan banatuta dauden **170 modulu interaktibo** baino gehiagoren laguntzaz, zure gorputza barrutik nolakoa den ikusi ahal izango duzu, argiaren bitxikeriek liluratuta utziko zaituzte, zentzu-menek nola engainatzen gaituzten erakutsiko dizugu eta elektrizitatearekin jolasteko aukera ere izango duzu.

Eureka! Museoan **Planetario** digital bat ere badugu non 360°tako kupula-pantaila baten azpian Unibertsoan barrena bidaiatuko duzun. **Animalia** aretoan, hiru ekosistema desberdinetako 20 animalia ezagutuko dituzu eta nahi izanez gero, bisita gidatuetan, ukitzeko aukera ere izango duzu. Areto honen helburua natura eta izaki bizidunen-ganako errespetua sustatzea da.

Eta museoaren osagarri gisa, **simulagailuen** gelan Errusiar mendiak, 1Formula autoa, Maxflight hegaldi simulagailua edota 3D-tako Orion ontzian emozioz beteriko bidaiak egin ahal izango dituzu.

Esan bezala, plan ezin hobea lagunartean edota familiarekin egiteko.

Zerbitzuak eta informazio praktikoa:

Doako aparkaleku zabala, terrazadun kafetegi-jatetxea, piknik gune estalia, haur jolas parkea, kontsignak, lorategia, Gipuzkoako eraikin ezagunen maketa bilduma, bus geltokia (28 eta 17 zenbakiak).

Egunero zabalik. Animazio eta ikuskizunen programa webgunean kontsultatu etorri aurretik.


Mikeletegi pasealekua 43 –(Miramon-Ospitaleak) Donostia
Tel. 943 012 478 – www.eurekamuseoa.es

Nola iritsi:

Autoz: GPS: 43° 17' 24.24" - 1° 59' 03.6"
GPS dezimala: 43.290124 - 1.984334

eureka!
zientzia
museoa

Zientzia
dibertigarria!



eureka!
zientzia museoak
kutxa FUNDATZIOA



ARESO

GIZARTEA → LANALDI ERDIKO KONTRATUA

Administraria kontratatze-ko deialdia argitaratu du Udalak

Apirilaren 10era arte aurkez litezke eskakizunak

Juana Mari SAIZAR

Aresoko Udalak administraria kontratatze-ko deialdia argitaratu zuen martxoaren 27an. Lanaldi erdian, kontratu administratiboa eskaintzen da, C mailakoa eta %14,20ko lanpostu osagarria. Baldintzen artean ezinbestekoa izanena da euskara maila altua izatea (C1 maila idatziz eta ahos).

Interesa dutenek apirilaren 10era arteko epea izanen dute Udal-letxean izena eman eta

dagozkien meritua aurkezteko.

Froga gaitzen dutenekin, lanpoltsa bat sortuko da etorkizuneko sor litezkeen beharrei aurre egiteko.

Korrikaren aldeko kilometroa

Aurreko aldizkarian aipatu genuen Udalak Korrikaren aldeko kilometroa erosi zuela. Bi izango dira azkeneko artean beste kilometro bat erosi baitute. Apirilaren 9an Iruñean izango den Korrika amaie-



ARGAZKIA: BAKARTXO ANIZ

'Piedras con Alma' liburua argitaratu du herrian bizi den Bakartxo Aniz argazkilariak

Herritarren artean artista bat baino gehiago izan ditugula gauza jakina da. Gutxiak jakingo dute, ordea, Alkozko bordan bizi den Bakartxo Aniz argazkilariaren berri. Bere lana ikusteko aukera izango dugu liburudendetan, 'Piedras con alma' liburua argitaratu berri duelako. Lau urtez Aragoiko Pirinioan barna, hutsik dauden herrietan atera dituen argazkiak bildu ditu liburuan. 240 orrialdetan, 300 argazki baino gehiago bildu ditu, herria hutsik geratu izanaren arrazoiak azalduz. Egileak dio: «liburua oroitzapenak, usainak, soinuak, emozioak eta garai bateko istorioak biltzen dituen kutxa zahar baten parekoa» izatea nahiko lukela. Informazio gehiago www.bakartxoaniz.com orrialdean.

rako festara ere bertaratzeko asmoa dute herritarrek.

Festa Batzordea lanean

Festak antolatze-ko bilerak egiten hasiak dira herritarrek eta dagoeneko zenbait xehetasun

loturak dituzte, tartean baita musikariak ere. Bilerak hauetarako deialdiak irekiak izaten dire-

nez, herritarrei bilere-tara azaldu eta parte hartzerari gonbidatu nahi zaie.



Ba al zenekien

Apiril hasieran herriko haur eta gurasoek zuhaitzak landatzeko asmoa zutela. Urteroko hitzordua dute. Hurrengo aldizkarian argazkia!

IRUSO
Ostatua
Arkiskil
LEITZA
Nafarroa

T. 948 397 234
M. 669 013 294

On egin deizula!

3 urteren ondoren berriz martxan!

Asteazken eguneko menua
Asteburuetan:
Egurdian menu berezia
Gauean karta berezia:
Iberikoak, entsalada epelak, tostada bereziak, pizzak, plater konbinatuak, haragi eta arrain karta zabala, etxeko postreak...

Prezio aukera zabala!

LEITZALDEKO BERDINTASUN BATZORDEAK ANTOLATUTA

Haurren transexualitateari buruzko hitzaldiak eskainiko dituzte Leitzan eta Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Haur transexualitatea: ulertu lagundu ahal izateko hitzaldia eskainiko dute apirilaren 7an, 17:30ean, Leitzako Erleta eskolako jangelan. Iñaki Goñi sexologoa eta Chrysallis elkarte-ko Edurne Korch eta Asier Mariezkurrenaren testigantzak entzuteko aukera izanen dute bertaratzeko direnek. Izen-ematea ezinbestekoa izanen da eta horretarako in-

teresa dutenek 948510840 telefonora deitu beharko dute apirilaren 5a baino lehen.

Goizuetan berriz, apirilaren 24an 17:30ean izanen da hitzaldia eskolako jantokian. Chrysallis elkarte-ko Edurne Korch eta Asier Mariezkurrenarekin batera, Erika Salbaterra arituko da hizlari lanetan.

Bi saioetan haurtzaindegi zerbitzua izanen da.

GIZARTEA → III. ENERGIA JARDUNALDIEN BAITAN

Udalak Energia Plan berriaren aurkezpena egin du

Energia gastua, kontsumoa eta CO2 emisioak murrizteko helburua dute

JM BARRIOLA

Leitzako III. Energia jardunaldien barruan, aurkeztu zuen Udalak Energia Plan berria. ESE-TEK enpresarekin batera landu dute eta diagnostiko zehatz bat osatu ondotik ingurumena zaindu eta dirua aurrezteko balioko duten neurriak aurkeztu dituzte.

Udalak gaur egun dituen energia hornidura kontratu guztiak errebisatu dituzte, eraikin eta kale argiteriaren egoeraren azterketa egin da eta horren ondotik, neurri zuzentzaile batzuk proposatu dira planean. Neurri horiek kanpoko argiteriari zein eraikinei eragingo diete. Hala no-



ARGAZKIA: MIKEL ILLARREGI

Gure esku dagoko lantaldea lanean ari da

Martxoaren 18an bertso-afari ederra antolatu zuten Gure Esku Dagoren baitan. 87 lagun bildu ziren Jubiko jangelan eta Lizaso eta Alaia Martin bertsolariak giroa zuten afaloste. Hurrengo hitzordua apirilaren 11rako jarria dute. 19:00etan Aurrerako aretoan batzarra deitu dute ekainean egin beharreko galdeketo galdera lantzeko asmoz. Jakina da ekainaren 18an eskualde guztian erabakitze eskubidea aldarrikatuz galdeketa egingen dela eta herritarrak bozkatze aukera bikaina izanen dutela.

la, kanpoko argiteria guztia LED sistemara aldatzea proposatzen du eta eraikinetako argiztapen, berokuntza sistema eta ekipamendu energetikoan hainbat ho-

bekuntza. Oraingo planarekin, 2020rako helburuak zehazturik gertuko dira. Horrela urteko energia gastua 100.726 eurotik 64.811 eurotara jaitsi nahi da;

kontsumoak 819.051 kwhtik 482.262 kwhra. Eta CO2 emisioak erdira murriztu nahi dira, gaur egun isurtzen diren 227,38 tona/urtetik 105,97ra jaitsita.

BERTAKO PRIDUKTUEN MAHAIAK

Kontsumo ohituren inguruko inkesta egingen dute etxez etxe

JM BARRIOLA

Bertako produktuen inguruko lan-taldeak apirila eta maiatza bitartean 400 inkesta egin nahi ditu herritarren artean bertako produktuak erosi eta kontsumitzeko dagoen interesa neurtzeko. Irati Iparra ariko da etxez etxe iritzi guztiak biltzen. Janaria erosketa zein kontsumitzeko ohituren inguruko galderak izanen dira. Gainera, herritarrei bertako produktuen kontsumo eta erosketa bultzatzeko zer egin daitekeen galde-tuko zaie. Eta jasoko den emaitza Leitzako errealitatearen ahalik eta erakusgarriena izateko, adin-tarte eta generoa kontuan hartuko dira. Hilabete hauetan guztietan egindako lana, maiatzaren bukaeran aurkeztuko zaie herritarrei.

KIROLA

Herri krosaren 39.edizioa ospatuko da apirilaren 8an

JM BARRIOLA

Aurrera Elkartek antolatzen duen herri krosa apirilaren 8an izanen da. Iaz estreinatu zuten ibilbide berria, lasterketa herrigunera hurbilduz eta aurten ibilbide horixe mantenduko dute. Benjaminak 800 metroko ibilbidea osatu beharko dute (ibilbide zaharra) eta gaztetxoek 2.250 metroko ibilbidea egingen dute. Kategoria absolutuan zirkuituari bi edo lau itzuli emateko aukera izanen dute (4.500 m edo 9.000m). Benjaminak 16:30ean abiatuko dira irteeratik, gaztetxoak 17:00etan eta helduak 17:30ean. Bukaeran sari banaketa eta zozketak izanen dira. Izen-ematea www.kirolprobak.com-en egin liteke apirilaren 7ra arte eta baita egunean bertan ere.


AGENDA

Jeiki abesbatzaren emanaldia 9an

Kontzertu sakroa eskainiko du Jeiki abesbatzak apirilaren 9an 10:00etan Leitzako elizan. Organista moduan Josu Larumbe ariko da eta zuzendari lanetan Nekane Piñuela. Sarrera 5 euro kostako da.

Torrea Libreraren baitan ekitaldiak

Torrea Libre dinamika barrenean, Jurgi Ekiza barkalariak kontzertua eskainiko du apirilaren 7an Torrean, 23:00etatik aurrera. Sarrera 5 euro ordaindu beharko da. Eta *Mundua irribarrez, begiak irekita sentitze*ko erakusketa ere ikusgai egonen da apirilaren 30era arte Torrean. Eñaut Aiertzaguenaren marrazkiekin osatutako bilduma da.



Pertsonaia

Leire RETEGI FERNANDEZ

Hernaniko XII. Txistulari gazteen lehiaketan saritua

Martxoaren 25 eta 26an jokatu zen lehiaketa eta Iruñea taldean, talde-tako lehen saria eskuratu zuen Leirek Jose Antonio Erauskinen *Aitona* obrarekin.

GOIZUETA-ARANO



UTZITAKO ARGAZKIA

Ederki ekipatua gelditu da Zubimuxuko sukaldean.

GIZARTEA → UDALAREN INBERTSIOA

Bertan sukaldatzeko zerbitzua jarri dute Zubimuxu aterpetxean

Indukziooko plaka eta labea jarri berriak dituzte

TTIPI-TTAPA

Zubimuxu aterpetxean bertan sukaldatzeko zerbitzua gehitu du Udalak, lehen zituen hozkailua eta mikrouhin labeaz gain, indukziooko plaka eta labea jarri berriak ditu. Beraz, bertan aterpea hartzen dutenek janaria bertan prestatzeko aukera ere zabalagoa izanen dute.

'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena

Martxan jarri da, hamaikagarren aldiz, *Irakurri, Gozatu eta Oparitu* ekimena, baina aurreneko aldia da, Goizueta eta Aranok ere parte hartuko dutela.

Euskaltzaleen Topa-

guneak eta Malerreka Mankomunitateko eta Goizueta, Arano, Leiza eta Aresoko Euskara Zerbitzuek antolatu dute ekimena, euskeraz irakurtzeko zaletasuna sustatu nahian. Maiatzaren 31ra arte izanen da martxan, kanpaina.

Kanpainan parte hartzeko, goizuetar eta aranoarrek Leitzako liburutegian euskerazko libururen bat eskatu beharko dute, maileguan, etxerako; www.bibliotecaspublicas.es/leitza/index.jsp webgunean begiratu daiteke katalogoa, eta Goxali proiektuari esker, nahi den liburua eskatu daiteke 681 265 188 edo 948 510 840 telefonoe-tan, zuzenean Goxaliko begiraleei edo tmartinez@lagagizartezerbitzua.org helbide elektronikoan.

Irakurri ondoren, fi-



ARGAZKIAK: NAFARROA OINEZ

Goizueta eta Aranoko taldeak Haur eta Gaztetxo kantu jaialdian

Haur eta Gaztetxo kantu jaialdian parte hartu zuten Goizueta eta Aranoko ikasleek martxoaren 25ean Lesakan. Goizuetako eskolako txikienek *Amets bat* (Alaitz eta Maider) kantatu zuten musikarien laguntzaz eta koxkorragoek *Agortu dira hitzak* (Hesian), kitarra elektriko, bateria eta organoa lagun zutela. Arano herria taldeak *Gogoak* kantatu zuen, hauek ere kitarra eta bateriaren laguntzarekin. Saio ederra eskaini zuten guztiek.

txa bat bete beharko da liburutegian, irakurritakoaren inguruko iritzia emanez. Horren truke, euskerazko liburu bat %35 merkeago erosteko aukera emanen da, eta gainera, apirila eta maiatzean, 30 euroko txekea zozketatuko da

liburutegian fitxa bete dutenen artean.

Kanpainaren leloak dioen bezala, maileguan hartutako liburua *Irakurri eta Gozatu* ondoren, Oparitarako tartea izanen da.

Horretarako, gainera, epe luzeagoa izanen

da. Hau da, opari txeeak maiatzaren 31ra arte lortu ahal izanen dira, baina gastatzeko ekainaren 10era arte izanen da aukera. Goizueta eta Aranoko irakurleek Hernaniko Elkar dendan erabili ahal izanen dute txekea.

GIZARTEA → NAFARROAKO GOBERNUA, UDALA, ASEGURUEN KONPENTSASIO PARTZUERGOA ETA ESPEZIALIZATUTAKO ENPRESA BATEN LANA

Uholdeak hondatutako 150 urteko historia berreskuratu dute Elizondon

Gobernuak
200.000
eurorekin
finantziatu du

TTIPI-TTAPA

Baztan ibaiaren uraldi batek Elizondoko Bake Epaitegiko eta Erregistro Zibileko artxiboetan jasotako Baztan Haranaren eguneroko historia hondatu zuen 2014ko uztailaren 4ko goizean.

Udalerriko etxebizitza, kale eta zerbitzu batzuekin gertatu zen bezala, urak eta lohiak Bake Epaitegia hartu zuten goiz hartan. Ia erabat suntsituta geratu zen epaitegiko artxibo guztia, XIX. mende erdialdera artekoa.

Agiri horiek berreskuratzea zen lehendakaritzako, Nafarroako Gobernuaren helburua, eta lortu egin da, hainbat administrazioen lanari eta artisau-erako zaharberritze-teknikei esker. Horrela, Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak eta Nafarroako Gobernuak hartu dute beren gain artxiboa berreskuratzeko finantzazioa, 200.000 eurorekin; Udalak beharrezko bitarteko materialak jarri ditu; eta Kulturako Zuzendaritza Nagusiarekin kolaboratzen



UTZITAKO ARGAZKIAK

Epaitegiko liburuetako bat, berreskuratze lanen aitzinetik eta ondotik.

duen Barbachano & Beny enpresak egin ditu agiriaren zaharberritze-lanak, Cercedillan duen lantegian. Zaharberritze-lan hori eta argazkien digitalizatzeko-lanak Nafarroako Gobernuak eta Rafael Catala Espainiako Justizia ministroak 2015eko irailean sina-

tutako lankidetzak-hitza-menean jasota zeuden.

Zoritzarrez, Uraren Zerbitzuaren kalkuluek diotenez 2014koa bezalako uraldi bat 50 urtean behin gertatzen da banaz bertze eta, zalan-tzarik gabe, uholdeak errepikatuko dira etorkizunean, lehenago edo

beranduago. Hala ere, bake epaitegiko eta erregistro zibileko berreskuratutako funtsak salbu egonen dira egoitza berrian, Foruzaingoaren komisaria zegoen erai-kinean; izan ere, hara eramanez dira agiriak, Udalak lokal horiek ego-kitu ondoren.

138 LIBURU, ETA AGIRIZ BETETAKO 97 KAXA

Uholdeak 138 liburu eta eskuz idatzitako, mekanografiatutako eta inprimatutako agiriz betetako 97 kaxa kaltetu zituen, horietatik zaharrenak 1854koak. Guztia berreskuratu dira. Agiri horietan jasotzen dira azken 84 urteetako jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak, 1899. urteaz geroztiko hauteskunde-prozesuetako dokumentazioa, eta epaitegi horrek XIX. mende erdiaz geroztik emandako adiskidetzak, erreguak eta kontziliazioak, bertzeak bertze.

Liburu eta kaxa horietako aunitz urak eta lohiak hartu zituen eta lan neketsua izan da berreskuratzea. Materialak erabat bustita zeuden eta erraz puskatzen ziren. Gainera, hezetasunaren eraginez, eta lehortu arte denbora igaro zenez, mikroorganismoak ugaltu ziren; material batzuek orban gutxi batzuk zituzten, baina bazeuden ondoek erabat hartutako orri-multzoak ere.

Bertze kalte batzuk ere jasan zituzten: tinta desagertu zen, hezetasunak deformazioak eragin zituen, liburu batzuk tolestuta zeuden eta kaxak bihurrituta; agiri eusten zieten metalezko elementuak herdoilduta, hala nola grapak eta klipak; eta koardernaketak hondatuta, liburuak ezin baitziren itxi orrien bolumena hazi egin zelako uraren eraginez.

**CARLOS
GARAICOETXEA
ETXENIKE**
abokatua



Santiago, 59 2C · ELIZONDO
T. 948 581 468 M. 630 354 818



SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin
egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatu
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAJA IREKIA

BAZTAN

KULTURA → APIRILAREN 13RA ARTE EMAN DAITEKE IZENA

Haur-gazte kantarien seigarren topaketa egingen dute Iruritan

Tailerra egingen dute maiatzaren 6an eta kontzertua maiatzaren 20an

TTIPI-TTAPA

Elizondoko abesbata bere 75. urteurrena ospatzen ari da aurten. Prestatu dituzten ekitaldien artean, Haur-gazte kantarien VI topaketa egingen dute Iruritan, Josu Elberdin musikariarekin. Honela, zonaldeko haur eta gaztetxoak bilduko dira Josu Elberdin musikari haundiarekin. Lehenik, tailerra egingen dute Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Bilgunean, maiatzaren 6an. Kontzertua, Iruritako elizan eskainiko dute maiatzaren 20an.

Izen-ematea ikastetxetan egin daiteke apirilaren 13ra bitarte, 5 euro ordainduta.

Antsietatea eta estresa gainditzeko tailerra Elizondoko Osasun Etxean

Estresa eta antsietatea gainditzeko tailerra antolatu dute Elizondoko Osasun Etxeak. Apirilaren 27 eta maiatzaren 4 eta 11n eskainiko dute Osasun Etxeko erabilera anitzeko gelan, 16:00etatik 18:30 arte.

Estresa zer den eta zerk sortzen duen jakitea, erlajatzeko teknikak ikasi eta praktikatzea eta gure bizitzako



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Baztango Gorriek Osasunazaleen peñak 15 urte bete ditu

Osasuna futbol taldeko zaleak biltzen dituen Baztango Gorriek peñak 15 urte bete berri ditu eta aitzaki horrekin, Martin Monreal entrenatzaile ohia ohorezko bazkide izendatu zuten eta peñaren kamixeta eman zioten opari. Martin ere ez zen esku hutsik etorri eta Osasunak Gironan lehen mailara igaitea lortu zuenean bi peñakiderek ateratako argazkia ekarri zuen opari. Gaur egun 40 bazkide dituen peñako presidente den Joselu Perezek aipatu zuenez, «peña hau ez da Osasunazalea bakarrik, Martinzalea ere bada».

aldaketak pentsatu, tentsio gutxiago nola sortu edo sortuak nola atera ikastea izanen dira tailerraren helburuak.

Izena emateko 948 581832 telefonora deitu behar da edo Elizon-

Ba al zenekien

Bailableak izanen direla igandean 12:45ean Elizondoko plazan, Baztango Dantzarien eta Elizondoko Gaiteroen eskutik.

doko Osasun Etxeko harreran. Informazio ge-

hiago telefono berean emanen dute.

FLASH

Esklerosi anizkoitzari buruz erakusketa eta hitzaldia

Esklerosi anizkoitza, bi begirada, errealitate bat erakusketa zabalik dago Arizkuneneako erakusketa gelan apirilaren 3tik 7ra, 17:00etatik 20:00etara, Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteak antolatuta. Apirilaren 6an, ortzegunean 19:00etan Esklerosi anizkoitzarekin bizi solasaldia eskainiko dute Nora Goñi eta Leire Tejedo elkarteako fisioterapeutek leku berean.

Baztan haranari buruz solasean

Baztango kaparetasuna: nobleziaren historia eta Baztango haraneko armariak solasaldia eskainiko du Jose Maria Imizcozek apirilaren 7an, 20:00etan Arizkunenean. (Sarrera Xauli elkartearen alde).

Bertako produktuen azoka

Baztango artisauek antolatuta bertako produktuen azoka egingen dute apirilaren 14 eta 15ean, 10:00etatik 14:00etara Elizondoko plazan.

zergalan | **asegi**
asesores y consejeros de empresa
enpresa kontseilari eta aholkulariak

ORAIN ZERBITZU BERRIAK ESKAINTZEN DITUGU

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa

- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

www.zergalan.es | info@zergalan.es
www.asegi.com

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

GIZARTEA → MARTXOAREN 23KO UDAL BATZARREAN

Erdizko mugei buruzko ebazpena errekurrituko du Udalak

Ahobatez hartu zen erabakia

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak Erreniegako mendia zati bat Esteribarri emanez ateratako ebazpena errekurritzeko erabakia aho batez onartu zuen udalak martxoaren 23an. Horrela, udal ordezkariak Nafarroako Administrazioarekiko Auzi Epaitegian errekurtsoa paratzeko erabakia hartu zuten.

2014an Esteribarreko Udalak Gobernuaren aitzinean Erreniega inguruan mugak berrikusteko prozesua abiatu zuen. Denbora tarte horretan Udala bailara interesen defentsan aritu da 1919an egin zen mugapenetik lur-eremu

guzti hori Baztango mugen barnean izan baita, orain artio inork deus erran gabe.

Nafarroako Gobernuaren ebazpenak 567 hektareari eragiten dio, horietatik 300 hektarea inguru Erdizen. Ebazpenak dio orain artio muga ez dela zuzena eta Baztan barnean den lurzati hori Esteribarreko udalaren barnean dagoela; hau da, Udaleko mugen aldaketa egiten du ebazpenak, ez lurzatiaren jabegoarena. Ebazpena urtarrilaren 11n argitaratu zuen, orain udalak bi hilabeteko epea izanen du errekurtsoa aurkezteko.

Errekurtsoa prestatu edukitzean Udalak herritar guztiei informazioa emateko batzarrea deituko du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bi urtez ondutako konposta atera dute Baztan Ikastolan

Azken bi urte hauetan Baztan ikastolako ikasle eta irakasleek beren gosarrietan sorturiko hondakin organikoak bereizi eta Udalak jarritako konpostagailuan konpostatu dituzte. Udaleko hondakin teknikariaren aholkuak jaso badituzte ere, lan guztia beraiek egin dute. Ikastolako ikasle guztiek parte hartzen dute aportazio prozesuan eta duela bi urte beren lanaren lehendabiziko emaitza lortu zuten, itxura ezin hobeko konpost ondua atera zuten 4. mailako ikasleek! Lorturiko ongarriz beteriko poltsatxoak eraman zituzten etxera eta gainerako konposta Elizondoko ikastetxe publikoko lagunekin batera mantendu behar duten herriko baratzea ongarrizteko erabiliko dute, honela gai organikoaren zikloa herrian bertan hertsiz.

LANAK APIRILAREN 19RA BITARTE AURKEZ DAITEZKE

Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiaketa abian

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra. Baztanen eskuara barra-barra. Elizondon, 2017ko uztailaren 16an. Testu hori eraman beharko duen kartel lehiaketa abiatu du aurten ere Baztandarren Biltzarra Elkarteak. Apirilaren 19ra bitarte aurkeztu beharko dira lanak. Gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz, egun horretan Baztandarren Biltzarra Elkartearen esku egon beharko dute.

27,9x42 zentimetro izan beharko duten kartelak (A3) Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxera igorri beharko dira (Jaime Urrutia kalea, 1 solairua; 31700 Elizondo). Lehiaketa irekia eta zabala denez, parte hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Sariduna, berriz, apirilaren 21etik aitzinerat emanen da ezagutzera. Kartel bakarra aukeratuko du epaimahaiak eta honek 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzarra egunean, uztailaren 16an, hain zuzen. Dena den, epaimahaiak kartelik ez aukeratzea ere erabaki dezake.

Bertzalde, aipatu, uztailaren 17tik aitzinerat, parte hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituztela antolatzaileekin harremanetan jarri.

Edozein zalantzatarako *baztandarrenbiltzarra@hotmail.com* helbidera idatzi behar da. Baztango kultura bulegoa soilik lanak biltzeko puntua izanen da.

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasoako sagardotegiak

Dolarea

Eskualdean egindako sagardoa

LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

BAZTAN

GIZARTEA → APIRILAREN 29AN

Bazken aldizkatze ikastaroa egingen dute Anizen

Agroekologia eskola herritarraren baitan antolatu du Hazitik Hoziek eta Aitor eta Mikel Azkarate anaiek eskainiko dute

TTIPI-TTAPA

Baztango agroekologia eskola herritarraren barnean Hazitik Hozie elkarteak bazken aldizkatzeari buruzko ikastaroa antolatu du. Aldizkatze teknikak lurrrari lotutako abeltzaintzarako beharrezkoak dira, tokiko baliabideetatik egokitutako manejuak direlako. Anizko Aitor eta Mikel Azkarate nekazaritza ekologikoaren bidetik bazken aldizkatze teknikekin ari dira eta ikastaro honetan, beraiek ikasitakoa interesa duten guztiekin elkarbanatuko dute.

BAZKEN ALDIZKATZEA ZER DA?

Aitor Azkaratek bazken aldizkatzeari buruzko zenbait azalpen eman ditu «animaliak belaietan

bazkatzea eta, denbora jakin batean animaliak belaez aldatzea da. Belaia handia bada edo behi, ardi... gutti badira, belai berean puska ezberdinak egin daitezke eta bertan egunero, astero...aldatu. Ahalik eta puska ttikienak egin eta behin eta berriz puska edo belai berriak jartzea izanen litzateke hobere-na, baina laborariaren denbora ere kontutan hartu behar da».

Ikastaroan zatiak nola egin, noiz erabaki belaez aldatzea, belar motak aztertu, noiz moztu belarra etab. erakutsiko dute.

Gai honi buruz gero eta dokumentzio gehiago dago; egia da bakoitzak bere ikuspuntua duela. Azkaratetarrak toki ezberdinetan egon dira ikusi eta ikasten, hala nola, Valladolideko herrixka batean, Frantzia, Orreaga IN-TIAk duen belaietan eta teknikari ezberdinekin egon dira harremanetan. «Dena den, aunitz falta zaigu ikasteko», onartu dute.

Ikastaroa apirilaren 29an, goizeko 10etan Anizko Jauregian egingen da. Izena emateko hazitikhozie@gmail.com helbide elektronikora idatzi behar da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Bertako sagardoen dastaketa-lantegia egin dute Gamioxarrean

Sagardoaren kultura berreskuratzeko eginaharari segida emanez, Jo ala Jok, bertako sagardoaren dastaketa-lantegia antolatu zuen martxoaren 17an, Arizkungo Gamioxarre dolarean. Lantegian Juan Zubiarran enologoaren azalpen teknikoak eta bertako sagardogileen sagardoak eta sagardoa egiteko moduak uztartu zituzten. Modu horretan Berroeta, Zozai, Arizkun, Etxalarko... sagardoaren gainean, Zubiarranek sagardoaren zapore, kolore, usaimenari... buruzko argibideak eta zergatiak eman zituen. Horrela, sagar-barietateek, irakinaldiak, kupelak, tenperaturak, zanpatzeko erabilitako tresnak... sagardoan zer eragin duten esplikatu zuen. Zubiarranen erranetan, sagardo egileak nahi duen sagardoa egiten laguntzen dute enologoek; egileak bilatzen duen zapore, usaimenaren... bidetik. Horregatik, sagardo txarrik ez dagoela erran zuen, norberak bilatzen duen hori baizik. Orain bi urte, Jo ala Joren eskutik ere, Elizondoko Aise elkartearen bertze sagardo dastaketa egin zen eta urtero Kirikoketa bestaren arrimuan bertako sagardogileek elkarrekin egoteko tartea izaten dute.

MARTXOAREN 22AN BILDU ZIREN IRUÑEAN

Bailarako errepideen egoerari buruzko konpromisoak eskatu dizkio Udalak Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Baztango udaleko ordezkariak Nafarroako Gobernuko herri-lanetako zuzendaritza nagusiko arduraduekin Iruñean bildu zen martxoaren 22an. Horrela, Joseba Otondo Baztango alkatea, Mikel Ortega alkateordea eta Florentino Goñi herri-lanetako zinegotzia Natxo Nagoreekin, herri-lanetako zuzendari nagusiarekin bildu dira. Bilera udalaren eskariz egin da Nafarroako Gobernuarenak diren Baztango hainbat errepideren egoerari buruz solastatzeko.

Baztango ordezkariak Bearzongo bidean zabalgunek egiteko eskatu dio zuzendari nagusiari. Modu berean Gorramendiko bidea xehaturik dagoela jakinarazi dio eta

Orabideako errepidea ere hondaturik dagoela. Arizkungo Iketzateko bentako bidegurutzeko biribilguneaz ere galdetu diote. Bertalde, Elizondorat sartzeko zubi berriaren proiektua zertan den erran diote eta Lekarozetik hilerrirat joateko zaldaina zertan den ere bai. Zuzendari nagusiak errepide sarea zabaldu eta hobetzeko partidari gabe dagoela erran die eta kontserbaziorako kontu-saila ere justua dela. Baztango ordezkariak ez du konpromiso zehatzik lortu ahal izan, baina Baztanek dituen behar horietarik ohartzeko baliatu dute hitzordua. Bailarako gainerako bideen mantenimendu eta konponketa Tokiko Inbertsio Planetik eta Udalaren aurrekontutik bideratzen da.

Apirilaren 9an irekiko da **BERTIZ ABENTURA PARK** berritua



6 IBILBIDE (zailtasun desberdinetakoak)
60 joko baino gehiago eta 6 tirolina.
Hiru urtetik gorako haurrentzat.

● **HORIA** (+3 URTE)
● **BERDEA** ● **URDINA**
● **GORRIA** ● **BELTZA**

● **TIROLINAK**



**BERTIZ ABENTURA
PARK**

Narbarteko zuhaitz-parkea oso-rik berritu dute, merkatuko segurtasun sistema berrienak jarritz. Aurrerantzean Bertiz Abentura Parkea, Europako legediara egokituta egonen da eta Euskal Herrian, 'Bizitzako lerro jarraia' sistema erabiliko duen lehen-bizikoa izanen da. Sistema honekin, erabiltzailea zirkuitoaren hasieratik bukaerara arte, kilometro bateko ibilbidean, segurtasun kableari lotuta egotea ziurtatzen da.

Ordutegia:

10:30-14:00 eta **15:00-18:30**.

(Aldez aurretik erreserbatu behar da:

Telefonoa: 646755760)



Disfrutatu abenturaz!

Natura bete-betean, aisialdirako aukera aunitz eskaintzen ditu **BKZ Nafarroa Abenturak**. Urtetako esperientzia dute turismo aktiboko jarduerak antolatzen eta dibertsioa eta segurtasuna dira beraien lanaren ardatzak. Horregatik, instalazioak etengabe berritzen dituzte Europako araudia zorrotzenetara egokitzeko.



BAZTANGO BIHOTZEAN

Baztan Abentura Parkea, ELIZONDOn dago eta bertan hainbat jarduera eskaintzen dira, tartean, **megatirolinen zirkuitua** (120 metroko altueran dauden 300-450 metro arteko 4 tirolina) edo lau urtetik goitikoendako **tirolina txikiak** (15 metroko altueran 60-70 metroko 4 tirolina). 200 metroko **via ferrata** ere instalazioen barruan dago eta azken segurtasun neurriekin hornituta dagoenez, zortzi urtetik goitikoak ibil daitezke bertan. Inguruan dauden **ur-jauzi** eta **ur-putzu** naturaletan **arroila-jaitsierak**, **rappel tikiak** (erorien aurkako sistema automatikoekin), **jauziak**, **ibilbideak**... egiteko aukera ere izanen dute bisitarrak. Familia, gazte, lagun taldeendako aukera ezin hobea da. Eta adrenalina topera sentitu nahi dutenek 100 metroko **mega pendulotik** salto egiteko aukera dute. (Edozein ekintza egiteko aldez aurretik egin behar da erreserba).

SENTITU URAREN INDARRA

Ur lasterretan ere ekintzak antolatzen dituzte: **rafting** eta **kanoa jeitsierak**, **hidrospeeda**... udaberri-uda partean egiteko paregabeak.

UDAKO KANPALDIK

Eta abenturaz betetako udara nahi dutenentzat, **udako kanpaldiak** ere eskaintzen dituzte LEGASA eta NARBARTEko aterpetxeetan. Uztaila edo abuztuan, 7-15 urte arteko haur eta gaztetxoei zuzenduta daude. Euskara edo gaztelaraz eskaintzen dira eta ingelesa praktikatzeko aukera ere izanen dute.



INFORMAZIO GEHIAGO ETA ERRESERBAK:

Tel.: 948 592322 edo 609461741 • bkz@navarraaventura.com • www.navarraaventura.com

BAZTAN

GIZARTEA → GEROA BAI-K UDAL AURREKONTUEN ONARPENEAN ABSTENTZIORAT JO IZANA AZALDU DU

Bake epaitegia Elizondoko plazan jartzeko aukera galdu dela uste dute

Traktorea erosteak ere planifikazio gehiago behar duela deritzo Geroa Bai-k

TTIPI-TTAPA

Baztango Geroa Bai-ren ustez, EH Bilduk eta Baztango Ezkerrak osatutako Udaleko gobernu taldeak bake epaitegiak Elizondoko plazan kokatzeko aukera galdu du, plaza horretan Udalak duen eraikinean lanak bukatzeko eta zerbitzu ezberdinak eman ahal izateko 180.000 euroko mailegu bat eskatzen zuen Geroa Bai-ren zuzenketa bat udal aurrekontuetan onartu gabe geratu ondoren.

Horregatik, Baztango Geroa Baik abstentziora jo zuen Udaleko 2017ko aurrekontuen onarpenean, «garrantzi handikoa» baiteritzo lanekin bukatzea eta udal eraikin hau martxan jartzea, «bazzandarren zerbitzu publikoak hobe-tzen dituen erabilera anitzetarako proiektatu zena», hala nola «eraikin honetan bake epaitegia kokatzea, turismo bulego bat, erabilera anitzeko areto bat ospakizun zibilak egiteko, Kiroleta Kultura udal zerbitzuen birkokapena, kanpo zerbitzuarako espazioak, hala nola larrutxe Kontsumitzaileen Elkarteak bizilagunei ematen diena, edota pertsona desgaituen-tzako irisgarriak diren



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bi auto erreak

Azken hilabete hauetan bi kotxe erreak agertu dira Baztanen. Lehendabiziko ezbeharra abenduaren 14ko goizaldean gertatu zen Azpilkuetan, garaje eta guzti erreak agertu ziren. Bigarrena otsailaren 26an gertatu zen, hau ere goizaldera. Ezbehar hauek kezka eragin dute bizilagunen artean.

komun publikoak».

Udal eraikinak 6 urte daramatza inolako inbertsiorik jaso gabe eta «egoera utzia eta abandonatua du gaur egun, haraneko irudiari duintasun gutxi emanez. 180.000 euroko mailegua hamar urtetan ordaindu daiteke, urteko 20.000 euroko amortizazioarekin, aurrekontuetan bere eragina oso txikia izanik. Baina bere likidazioa era bizkorragoan egiteko aukera ere badago altxortegisoberakinekin, Nafarroako Gobernuak erabilera libreko partidekin, bai eta Departamentu ezberdinetako dirulaguntzekin», baloratu du Baztango Geroa Baik.

Geroa Baiko udal taldeak «Udalbatzaren erabakia errespetatzen du bai eta udal talde ezberdinek dituzten lehenta-

sunak», baina ziurtatu duenez ezin ditu ulertu Baztango Ezkerrak zibernetziak Uxue Barkos Gobernuko Lehendakariaren aurka botatutako kritikak, harana hobotzeko ezer ez egiteaz salatu baitu. «Bere taldeak egungo Nafarroako Gobernuaren sostengatzen du. Aldi berean Gobernuaren eta oposizioaren egotea oso eroso da, beti asmatzen baita horrela», ziurtatu du Geroa Baik.

EZKERRARI KRITIKA

Azkenik, udal taldeak kritikatu du Baztango Ezkerrak zuzenketa honi aurkako botoa emateko bere azalpean «eskola eta bideetan lehentasunak aipatzea», aitzineko bi agintaldietan «Mugairi eta Elizondoko plazak konpontzea lehenetsi baitute Arizkuneko eskola

baino lehen, bai eta Baztango Geroa Baik aurrekontuetako mozioaren aurka bozkatu, Gobernuak Lekarozen Lanbide Heziketarako zentro bat kokatzeko aukera ikertzeko eskatuz».

«Gainera, bi urtetan zehar bideak ez dira garbitu, eta argudio hori erabili da Udalak sasi-garbitetarako traktore bat 60.000 eurotan erosteko», gaineratu du Baztango Geroa Baik, azalduz traktore hau beharrezkoa dela, nahiz eta bere erosketaren aurka agertu, inolako planifikaziorik gabe egin zelako. «Gaur frogatu da traktorea erosteak planifikazioa eskatzen zuela, bost hilabete baitaramatza geldirik eta ez da herrietan bere erabilerarako inolako planik definitu, Udalak ez baitu traktore gidaririk», akitu du udal taldeak.

UDAL GOBERNU TALDEA:

«Traktorearen zerbitzua urtean sei hilabetez eskainiko da»

TTIPI-TTAPA

Geroa Baik udaleko traktorearen zerbitzuari buruz salatzen duen prebisio faltaz, «behin eta berriz azaldu zaien moduan, traktore-gidaria urtero Nafarroako Gobernuak langabetuak kontratatuzko dirulaguntzarekin kontratatuko da, sei hilabetez, apiriletik aitzinerat», argitu du udal gobernu taldeak. Egin beharreko lanak berriz, udalaren palistarekin egiten den bezala, herrietako alkateekin adostuta eginen dira. Traktorea eta sasiak mozteko tresna erosi artio, udalak bideak garbitzeko zerbitzua bi hilabetez bertzerik ez zuen ematen; hemen-dik aitzinerat, zerbitzu hori sei hilabetez ematen da. Oroitarazi beharra dago «traktorea eta sasiak mozteko makina EH Bildu, Ezkerra, eta Auzolaneanen aldeko bozkarekin onartu zela, herrietako alkateen eskakizuna zela eta Baztanen gero eta gehiago sasitzen ari diren bide eta inguruak garbitzeko guztiz baliagarria izanzen dela».

Hain zuzen, traktorearen gidari lana betetzeko deialdia egin berri du Udalak.

BAZTAN

URDAZUBI

UDALAK JARRI DIO

Erabilera
libreko
funtsen
banaketari
alegazioa

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak argitaratutako erabilera libreko funtsen inguruan Baztan go udalerria bertze behin bazterturik gelditu da. Eta, horregatik, alegazioa aurkeztu berri du. Udalaren ustez, «laguntzen behar ko laster batek erakusten duen bezala eta adibidetako Baztanek inguruan dituen udalerriak kontuan harturik, udaletxe eta kontzejuka egiten den diruen banaketa honek Baztan hamabortz herriz osatua dagoela, bertze behin, ahazten du». Horrela, Baztanek (15 herri, 7.712 biztanle) 170.000 euro jasotzen baditu, Bortziriak, udal guztiak baturik (5 herri, 8.700 biztanle) 430.879 euro hartuko ditu eta Malerreka (12 herri, 5.000 biztalez inguru) 402.451 euro. Gauza bera Esteribarrekin alderatuz gero (Pilean 10 herri eta udala, 2.509 biztanle) 318.112 euro edo Erroibar (hamar herri eta udala, 809 biztanle) 221.669 euro. Arrangura, bistan da, ez da udal eta kontzeju horiek hartuko dutenari buruz, Baztanek jasaten duen bazterketari buruz baizik.

Baztanek hamabortz herri ditu, lurraldez Nafarroako udalerrri handiena da, eta azpiegitura sare publiko zabala du.

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 28AN

Dantxariko Denise Elsok 90 urte bete ditu osasuntsu

Urtetan
frantses
eskolak
emateaz gain,
artzain
euskaldunei
dokumentazio
eta tramite
ofizialak
betetzen
lagundu die

TTIPI-TTAPA

Ainhoako Dantxaria auzoko Denise Elsok 90 urte bete ditu. Elso 1927ko martxoaren 28an jaio zen Tanburirinea etxean –garai bateko Frantziako Bentan Urteetan Xaretako hainbat belaunaldi frantses eskolak ematen ibilia izan zen. Irakasle zorrotza, baina ona. Horregatik, Urdazubiko herritarren artean emakume estimatua da gaur egun Elso andereñoa. Ez da harritzekoa, Urdazubi nahiz Ainhoako hainbatek zoriontzia bere egunean. Ainhoako jubilatuek festa sorsea bat antolatu zioten, eta Ultzaman bizi den Marie Denise iloba eta familiarekin, Ur Hegian ospatu zuten bere urtebetetze eguna.

Dantxariko dama za-

harak, artzai euskaldunei dokumentazio eta tramite ofizialak betetzen laguntzen ibili da urte luzez, aitzak erakutsi bidetik.

AITONA JUDUTARRA ZUEN EMAKUME KRISTAUA

Denise Elso emakume kristaua da, Urdazubiko elizara joatea gustatzen zaio meza entzutera. Katekesia ematen ibili da 25 urtez Ainhoan. Baina, katolikoa izanik, Elsok erlijio kontuetan bihotza erdibiturik du: Baionako sinagogari diruz laguntzen segitzen du, aitonaren judutarrari emandako hitza betetz. Izan ere, jende askok ez dakien arren, amaren aldetik, aitona judutarra zuen Denise Elsok. Aitaren aldetik, berriz, merkataria ziren Elsotarrak, Ultzamatik Dantxariara etorriak. Iruñea eta Baiona artean ardoa saltzen ibiltzen zen Denisen birraitona eta Frantziako Bentan ezagutu zuen bertako alaba.

EKOLOGISTA PORROKATUA

Denise Elso ekologista militante porrokatua da, horretan aitzindaria izan da azken 50 urteotan. Animalien eskubideen aldeko defentsa sutsua egiten du eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Dantxariko Denise Elso, emakume maitatua.

zezenketak arbuatzen ditu.

Bere 90 urte hauetan, Denise Elsok mugaren historia lehen lehortik bizi ahal izan du. Espainiako Gerra Zibila mugaren bi aldeetan nola bizi izan zen oroitzen du oraindik. Bere etxean ostatu hartu zuten pertsonen artean, tristuraz oroitzen du Txekoslovakiatik iritsi zen kazetari judutar gaztea. Gerra Zibilari buruzko berriak idazten zituenean bitartean, Elsotarren lagun mina egin zen. Urte batzuk geroago, nazien biktima izan izan emazte eta haur besoetakoarekin batera. Elsoren etxea mugan egonik, Bigarren Mundu Gerran alemaniarren okupazioa etxean bertan ezagutu ahal izan

zuen, gendarmeen lekua hartu baitzuten alemanek etxe pareko erakinean. Denisek dioenez, okupazioari esker, urte hartan onddo ugari egon ziren Ainhoako mendietan, inor ez baitzituen biltzen ahal egoera hartan.

Eta nola ez, bere bizitza osoan zehar Denise Elso kontrabandoaren lekuko izan da, etxeko lorategia Lapitxuri ibaiaren ondoan egonik. Gaur egun, oraindik, etxean egongo balitz bezala pasatzen du muga, garai bateko oztoporik gabe, eta goizero ikus daiteke katuei bazkaria ematen, lorategian libururen bat irakurtzen, edo erosketaren bat egiten Dantxariko bentetan. Zorionak Denise!

ZUGARRAMURDI

KIROLA → APIRILAREN 8AN, ETXALAR, SARA, SENPERE ETA ZUGARRAMURDIKO TALDEEK

Korrika Kulturalaren baitan Bote luze txapelketa jokatu dute larunbatean

Ondotik bazkaria izanen da Arleun elkatean eta arratsalde apalean kontzertuak

Josebiñe eta Koro

Herrian osatu zen Korrika batzordea fin-aritu da lanean, eta Korrika kulturalerako hau antolatu dute:

Apirilaren 1ean Urdazubin arratsaldeko 8etan Gutik Zura dokumentala eskaini zen, eta ondotik Marijose Barriola zuzendariarekin solasaldi bat egin zen.

Apirilaren 8an berriz, Zugarramurdi izanen da besta: goizean Bote luze txapelketa izanen da Sara, Senpere, Etxalar eta Zugarramurdiren artean. Ondotik bazkaria Arleun elkatean (ize-na Maxintxenean eman behar da), eta arratsalde apalean kontzertuak: Joseba B. Lenoir Trio eta talde sorpresaren bat.

Aste Sainduari begira herria gurutzatzeko pasabidea txandaka emanen dute

Hainbat besta egun eta asteburutan, kotxe-ek herria gurutzatzeko arazo aunitz sortzen dira (pilaketak eta ataskoak). Hori dela eta, Udalak neurri bat hartu du: paso alternatiboa edo txandakako pasabidea emanen da, goizeko 11:30etik arratsaldeko 4etara.

Azketan, plazan, eta Martinean lagun bana jarriko da, eta elkarren artean komunikatuko dira, horrela autoak modu ordenatu batean gurutzatuko dute herria.

Neurri hau Aste Sainduan berean emanen da martxan, eta arazoak sortzen diren urteko bertz besta egun eta zubietan ere emanen da.

Bertzalde, aparkalekuen kontura, Aste Saindurako Azketa azpiko belategia irekiko da parking gisa.



ARTXIBOKO ARGAZIAK

Goitian, etxalartarrak eta zugarramurdiarrak bote luzean. Beheitiko argazkian, azken urteetan egun seinatuetan herriko karriketan sortzen diren auto pilaketa izugarriak.

JATETXE-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarinearik
 2 km. tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
 montxoblanco@gmail.com

APIRILAREN 21EAN SENPEREKO LARREKO GELAN

Kontzertua eskainiko du Pantxoa Carrerek

TTIPI-TTAPA

Pantxoa Carrerek kontzertua eskainiko du apirilaren 21ean, ortzira-lean 19:30ean Senpereko Larreko gelan. Peio Ospitalekin batera, hain ezagun egin den Pantxoa eta Peio musika taldeko kidea da. 1970. hamarkadan hasi ziren elkarrekin kantatzen. Gaur egun, Pantxoak bere gisara segitu du herriz-herri kantari eta *Anaitasunean* izeneko bakarkako lehen diska ere argitaratu du.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Pantxoa Carrere Senperen izanen da.

DONAMARTIRI

landetxeak eta
bisita gidatuak

GÎTE GARATEKOBORDA

9/10 lagunentzako



www.gites64.com/G142016

GÎTE ARGOITZA

4/5 lagunentzako



www.airbnb.fr/10461323

LOGELAK ALOKAIRUAN

1/6 lagunentzako



www.airbnb.fr/10669017



Marie-Luce Garat | kolorez.garat@gmail.com | T. 00 33 675 86 99 08

Bisita gidatuak antolatzen ditugu (gutxienez 6 laguneko taldeak), Donamartiri, Hazparne, Kanbo... euskaraz, frantsesez eta espainolez



Monumento Histórico

RÉSEAU PYRÉNÉES PRÉHISTORIQUES
ITINERARIOS EUROPEOS: ARTE RUPESTRE

Harpeak
Isturitz & Oxocelhaya
PREHISTORIA & GEOLOGIA®

2017
hartzaren
urtea

*Gizakiaren izpirituak oraino
ere ufatzen duen lekuri bada*

www.grottes-isturitz.com

Tel. 0033 559 29 64 72



SARA

KULTURA → BAZKO IGANDE ETA ASTELEHENEAN

24. Idazleen Biltzarra bi egunez egingen da aurten

Hainbat idazlek mintzaldiak eskainiko dituzte

Joana GERENDIAIN

Apirilaren 16 eta 17an, XXXIV. Idazleen biltzarra egingen da kiroldegian. Bi egunetan, 10:00etatik 18:00etara idazleek beren liburuak salduko eta izenpetuko dituzte eta sartzea 2 euro izanen da.

Igandean, goizeko 10etan hasita mintzaldi xokoa izanen da Azkain, Senpere eta Zuraidoko ikastetxe ezberdinentako. 12:15ean Didier Picot izanen da hizlari eta 12:30ean Txomin Hiriart-Urrutyk *La citadelle: colonie d'enfants réfugiés de la Guerre civile espagnole (1937-1939)* aurkeztuko du. 14:30etik 15:40ra

Arantxa Urretabizkaia eta Danele Sarriugarte idazleen hitzaldia izanen da, Karin Etxeberri animatua. Arratsaledeko mintzaldi xokoa Robert Bonnet, Peio E.A. eta Severine Dabadiek beraien liburuak aurkeztuko dituzte eta 17:00etan Idoia Rodriguez Mondragonek mintzaldia eskainiko du, Aines Haristoyk animatua (frantsesez). 18:00etan hasiko den gaudi mintzaldian, Kirmen Uribe idazlea Bernat Etxepare lizeoko ikasle eta erakasleekin ariko da.

Bazko Astelehenean, 10:40ean Euskaltzaindiako liburu berriak aurkeztuko dituzte, 11:30ean Maiatz aldi-zkariaren 35. Urteurrena gogoratuko dute eta eguerdian omenaldia eskainiko die EKEk MJ Minaberry eta Piarres Charitton-i. Gero



UTZITAKO ARGAZKIAK

627 kirolarik bukatu zuten XII. Sara Korrika Trail

Sara Korrika Trail mendi lasterketaren hamabigarren edizioa burutu zen martxoaren 26an eta 627 korrikalarik lortu zuten 22 kilometro luze dituen proba gogorra bukatzea. Bizkaitarrak nagusi izan direla erraten ahal da. Aitzineko hiru urteetan bezala, Durangoko Oier Ariznabarreta izan zen bizkorrena (1:51:21). Bigarren izan zen Beñat Marmisollek ere bi ordu baino guttiagotan proba burutzea lortu zuen (1:58:59) eta Beñat Katarainek osatu zuen podiuma (2:00:07). Emakumezkoetan, Abadiñoako Oihana Azkorbebeitia izan zen bizkorrena (2:19:42) eta 27. izan zen sailkapen orokorrean, gizasemeak ere kontuan hartuta. Maria Zorroza bigarren sartu zen (2:21:53) eta Sarah Dinclaux hirugarren (2:30:56). Sarako David Nespiars hogeita bigarren izan zen (2:17:23).

zintzur bustitzea izanen da. 14:30ean hitzaldia eskainiko dute Mikel Iribarren, Maddi Zubeldia eta Michel Mendiboure idazleek, Katixa Dolharek animatua. JC Etxegoien, JP Etxhevery eta Udako Euskal Unibertsitatearen mintzaldien ondoren, 17:00etan hitzaldia eskainiko dute Marko, Lucile Placin, Zigor eta France Favard idazleek, Maialen Sanchezek animatua.

Haurren xokoan, egun guztian familientzako irakurketa gunea eta idazketa tailerrak izanen dira, baita irakurketa musikalak oren guziz ere. 11:00etan *Biribil* ikusgarria, 4 urtetik goitikoendako eta 11:30ean 'Lapiñu malleta' ikusgarria ttipi-ttipiendako.

ERAKUSKETAK

Apirilaren 15etik 17ra Larrungo Koloreak El-

karteak margo eta zizelketa erakusketa irekiko du Denen etxean (10:30-12:30 eta 16:00-19:00). Eskuen Lana Elkartek ere erakusketa irekiko du apirilaren 13tik 18ra (10:00-18:00) Lur Berri gelan. Axuri'arteren eskutik, eskulanean erakusketa izanen da egun guziz plazan, baita Garzia eta Yola margolarien eta Mytabdi argazki-oihalezko sorkuntza lanak ere.

tanatorios
IRACHE

24 ORDUKO TELEFONOA
948 581 959 | 948 637 404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**Mármoles
SOULE**

HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 688 605 182
ARIZKUN



ARMUA JATETXEA



T. 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3 km
URDAZUBI



ZINTARRIAK • ADOKINAK • ZOLAK
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com
info@antzuzelai.com



Aintzinaldeak, angeluak, oma antzinakoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak

EZKONTZAK

Igor Romano Mitxelena eta **Amaia Goia Mitxelena**, Lesaka eta Berakoa, martxoaren 27an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Aret Onsalo Saizar, Aresokoa, martxoaren 22an.

Aritz Portu Iraizoz, Lesaka eta Artazkozkoa, martxoaren 21ean.

Kemen Telletxea Bertiz, Lesakakoa, martxoaren 11n.

Eñaut Errandonea Etxart, Sunbilla-koa, martxoaren 18an.

Ainhua Espelosin Garcia, Sunbilla-koa, martxoaren 19an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

ttipi-ttapa

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Miguel Elizondo Erasun, Doneztebekoa, martxoaren 3an, 65 urte.

Juan Bautista Lizardi Bereau, Arantzakoa, martxoaren 18an, 70 urte.

Julia Hualde Indakotxea, Zubietakoa, martxoaren 19an, 89 urte.

Maria Jesus Soroa Berasain, Leitza-koa, martxoaren 21ean, 85 urte.

Francisco Javier Iriarte Iribarren, Arizkungoa, martxoaren 22an, 81 urte.

Esther Mazizior Irazoki, Berakoa, martxoaren 22an, 57 urte.

Estefania Ganboa Jorajuria, Sunbilla-koa, martxoaren 23an, 90 urte.

Donato Lizardi Gisasola, Arantzakoa, martxoaren 28an, 66 urte.

Joaquin Zubikoa Rico, Elizondokoa, martxoaren 28an, 83 urte.

Jose Mari Iturbide Ordoki, Igantzi-koa, martxoaren 29an, 80 urte.

JUANITA GOÑI ISTILART

Borondatea, alaitasuna, goxotasuna...,
aurpegi txarrak berriz gutxi.
Zure oroitzapen polit horiek
Inork ezingo dizkigu inoiz ebatsi.
Joan zara baina aunitz utzi duzu,
gehiago ezin zen utzi,
Amatxirik gabe ez dago ilobarik,
Zenbat gauza dizkiguzun erakutsi...
Izan zinelako zara eta zarelako
beti izanen zara gure amatxi.

Amatxi Juanita,
zure iloben bihotzetan, betirako.

Oroigarriak egiten ditugu



ttipi-ttapa

Koskontako bidea, 07-1. | 31770 LESAKA | 948635458

PILOTA → ABUZTUAREN 5EAN JOKATUKO DA FINALA DONEZTEBEKO BEAR-ZANA PLAZAN

Hamar talde hasi dira Baztan-Errekako XXXVIII. Laxoa txapelketan

Doneztebeko 6, Iruritako 2 eta Arraioz eta Oizko bana

TTIPI-TTAPA

Apirileko lehen aste-buruan abiatu da Baztan-Errekako Laxoa txapelketaren 38. edizioa. Hamar talde ari dira aurtengoan, 6 Doneztebekoak, 2 Iruritakoak eta Arraioz eta Oizko bana. Azken bi urteetan bezala, izenaren ondok, babesle duten etxearen izena daramate taldeek aurtun. Finala abuztuaren 5ean jokatuko da Doneztebeko Bear Zana plazan.

Bosna taldeko bi multzotan banatuta hasi dira taldeak. A multzoan **Irurita-Miguelene** (Xabi Barberena, Gorka Urtasun, Jagoba



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Joan den urtean Arraiozen jokatu zen finala eta aurtun Donezteben izanen da.

Ramos eta Egoitz Prim), **Doneztebe-Apezteguia** (Ramontxo Etxe - beste, Jon Apeztegia, Joseba Juanena eta Ibai Santesteban), **Doneztebe-Titi** (Emilio Zaba-

la, Eloi Garcia, D. Pio Garcia eta Iñaki Maylin), **Doneztebe-Zarbo.net** (Felipe Ganboa, Luis Miguel Apeztexea, Jesus Mari Zabala eta Jose Mari Anzizar beterano-

ak) eta **Arraioz-Sagardia** (Mikel Mindegia, Xabier Mihura, Aritz Alunda eta Xabier Maritoren) ariko dira; B multzoan, **Doneztebe-The Moment**, (Pascual Ber-

tiz, Koldo Legarra, Javier Bertiz eta Jokin Arraztoa), **Doneztebe-Avia** (Asier Mutuberria, Javier Almandoz, Jokin Apeztexea eta Juan Te - lletxea), **Doneztebe-Suma** (Unai Sapuppo, Josu Juanena, Xabier Ibarrola eta Joseba Grazena), **Irurita-Biek** (Jorge Azkarate, Joseba Urtasun, Guillermo Etxenike eta Iñaki Etxandi) eta **Oiz-Kokoetxea** (Iker Bereau, Lander Mandiola, Ioritz Zelaia eta Iñaki Etxandi).

Multzo bakoitzeko lau lehenbizikoek final laurdenak jokatuko dituzte ekainaren 24an eta uztailaren 1 eta 8an; irabazleek finalurrekoak jokatuko dituzte uztailaren 15, 22 eta 29an eta finala Doneztebeko Bear Zana plazan jokatuko da abuztuaren 5ean.

MENDI LASTERKETAK → HAMAHIRUGARREN EDIZIOA

Berako Mendi Maratoi Erdia igandean jokatuko da

Ariznabarretak eta Solak laugarren garaipena segidan lor dezakete

TTIPI-TTAPA

Oier Ariznabarretak eta Laura Solak aitzineko hiru urteetan lortu-

tako garaipena errepikatzea bilatuko dute Berako XIII. Mendi Erdi Maratoian, igande honean, apirilaren 9an (09:30). Bizkaitarra, Sara Korrika Trailean ere hirugarrenez garaile suertatu dena berriki, izanen da faborito nagusia, 550 partaide izanen dituen Berako proban. Iaz hirugarren izan ziren Beñat Marmisolle eta

Aitziber Ibarbia ere abiatuko dira, baita mendi lasterketetan hasi berria den Antonio Etxerria errepideko korrikalari handia ere. Proba bortz aldiz irabazi duen Manttale taldeko Didier Zago frantziarrak ez da irteeran izanen. 40 emakumek eman dute aurtun ere izena.

Ibilbidean aldaketa ttiki bat egin dute anto-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Kirolariak Ibardin inguruan. Aurtun 550 espero dituzte.

latzaileek bukaera aldean, 19 eta 20,8 kilometroen artean. Zumalkuko hornidura-gunearen ondok, korrikalariak ez dira Lizuniagako errepidera jautsiko. Horren ordez Itzea auzora jau-

tsiko dira, Barojatarren etxearen ondok Altzate karrikara sartu eta helmugaratzeko.

Korrikalariak baino lehen, oinezkoendako txangoak ere abiatuko dira 08:30 eta 09:00etan.

AIZKORA → MARTXOAREN 19AN DONEZTEBEN

Etxeberria anaiak nagusi labaiendarren arteko apustuan

Pello eta Jon Telletxeari 3 minutu eta 25 segundoko aldea atera zieten

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo lau aizkolarik indarrak neurtu zituzten martxoa-

ren 19an, igande eguerdian Doneztebeko Ezkurra pilotalekuan egindako apustuan. Jesus Etxeberria eta Miguel Angel Etxeberria anaiak alde batetik, eta Pello Telletxea eta Jon bertzetik, aritu ziren. Bikote bakoitzak hamar kanaerdi eta lau oinbiko enbor moztu zituen eta jokoan jarritako 2.000 euroak Etxebe-



UTZITAKO ARGAZKIAK

500 ikusle bildu ziren Ezkurra pilotalekuan, apustua ikustera.

ria anaiek eraman zituzten, nagusitasunez irabazi ondotik. 500 lagun bildu ziren apustua ikustera.

Martin Mindegia, izan zen Etxeberria anaiei erakuslea eta Hilario Mindegia, berriz, Telletxeatarren erakuslea. Felix de Miguel eta Angel Telletxeak egin zi-

tuzten epaile lanak.

Hasieratik hasi ziren Jesus eta Miguel Angel Etxeberria nagusitzen. Lehen kanaerdikoan 16 segundo aitzinetik izan ziren eta pixkanaka alde handitzen joan ziren. Lan erdietan, 5 kanaerdiko eta bi oinbiko moztu zituztenean, Etxeberriatarrek 2 mi-

nutu eta 21 segundoko abantaila zuten.

Azkenean 45 minutu behar izan zituzten lanak burutzeko. Jon eta Pello Telletxeak 3 minutu eta 25 segundo gehiago behar izan zituzten, 48 minutu eta 25 segundo. Kanaerdiko baten eta bertzearen erdiaren aldea.

DENBORAK ENBORREZ ENBOR

1 Etxeberria anaiak	1.49	3.41	5.40	7.53	10.10	15.26	20.37	23.13	28.22	34.21	37.05	39.47	42.35	45.00
2 Pello-Jon Telletxea	2.05	3.58	6.01	8.23	11.06	17.13	22.58	25.46	31.31	37.43	40.42	43.13	45.31	48.25

DUATLOIA → MARTXOAREN 18AN ALTSASUN

Alberto Barberena Nafarroako txapeldun

Sprint modalitatean nagusitu da Erreka Tri taldeko baztandarra

TTIPI-TTAPA

Erreka Tri taldeko Alberto Barberena elizondarrak sprint modalita-

teko Nafarroako Duatloi txapelketa irabazi zuen martxoaren 18an Altsasun egindako lehiaketan. Sailkapen orokorrean bigarren izan zen Barberena, Pello Osororen gibeletik. Baina lehenbiziko nafarra izan zenez, beretzat izan zen Nafarroako txapela.

Pello Osorok ordu-bete, 4 minutu eta 39



UTZITAKO ARGAZKIAK

Alberto Barberena lasterka eta bizikletako zatietan, Altsasuko proban.

segundo behar izan zuten 5 kilometro lasterka, 22 kilometro bizikletan eta azkeneko bi kilometro eta erdi berriz ere lasterka egiteko. Barberenak, berriz, 26 segundo gehiago behar

izan zituen. Baztandarrak denborarik onenak egin zituen lasterka osatu beharreko zatietan, baina bizikletan Osoro gailendu zitzaion.

Alfredo Telletxea doneztebarrak ere parte

hartu zuen Altsasuko lasterketan eta 21. postua eskuratu zuen sailkapen orokorrean eta bosgarrena beteranoen kategorian, ordu-bete, 10 minutu eta 10 segundoko denborarekin.

apirilak 6 - 20

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Kontzertuak




SENPERE | 2017.04.21

Pantxoa Carrerek kantaldia eskainiko du Larreko Gelan

Peio Ospitalekin hain ezagun egin zen Pantxoa Carrere Larreko Gelan ariko da, 19:30-etik aitzinera. Joan den urte hondarrean aurkeztu zuen bere bakarkako lehen disko-ko kantak aditzeko aukera izanen da.

Hitzaldiak



LEITZA-GOIZUETA | 2017.04.07-24

Haur transexualitateari buruz hitzaldiak antolatu ditu Berdintasun Batzordeak

Ulertu, lagundu ahal izateko izenburupean haur transexualitatea izanen dute hizpide apirilaren 7an Leitza eta 24an Goizuetan. Sexologo batez gain, Chrysallis elkarte-koen bi lagun izanen dira hizlariak.

Erakusketak



BERA | 2017.04.21

Isidoro Fagoagaren ibilbidearen inguruan erakusketa zabalduko dute

Berako musikari haundia gogoan, erakusketa zabalduko dute Kultur Etxean apirilaren 21ean, 18:00etan. Ondotik Karnaba otxoteak kontzertua eskainiko du.

Hitzaldiak

ELIZONDO

'Esklerosi anizkoitzarekin bizi'

Apirilaren 6an 19:00etan Arizkunenean, Nora Goñi eta Leire Tejedó Nafarroako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteko fisioterapeutekin.

'Baztango kaparetasuna: nobleziaren historia eta Baztango Haraneko armarrak'

Apirilaren 7an 20:00etan Kasinon.

LEITZA

'Ulertu, lagundu ahal izateko' transexualitatea hizpide

Apirilaren 7an Erleta eskolan, 17:30ean, Iñaki Goñi sexologoarekin eta Edurne Koch eta Asier Mariezkurrena Chrysallis elkarteko kideekin.

SARA

Idazleen Biltzarren barne

Apirilaren 16an 14:30etik aitzinera solasaldiak idazleekin: Arantxa Urretabizkaia eta Danelle Sarriugarte, Robert Bonnet, Peio Etcheberri-Aintxart, Severine Dabadie, Idoia Rodrigo eta Kirmen Uribe.

Apirilaren 17an 10:40an Euskaltzaindiaren liburuen aurkezpenak eta 14:30etik aitzinera solasaldiak idazleekin: Mikel Iribarren, Maddi Zu-

beldia eta Michel Mendiburu, Juan Carlos Etxegoien, Jean-Pierre Etcheberri, Marco, Lucin Placin, Zigor eta France Favard.

GOIZUETA

'Ulertu, lagundu ahal izateko' transexualitatea hizpide

Apirilaren 24an eskolako jan-tokian, 17:30ean, Erika Salbaterra sexologoa eta Edurne Koch eta Asier Mariezkurrena Chrysallis elkarteko kideekin.

Erakusketak

LEITZA

Eñaut Aiertzaguenaren lanak

Apirilaren 30era arte Torre-

an, *Mundua irribarrez begiak irekita sentitzeko* erakusketa.

SARA

Eskuen lanak

Apirilaren 13tik 18ra Lur Berri gelan (10:00-18:00).

Larrungo Koloreak-en lanak

Apirilaren 15etik 17ra Denon Etxean (10:30-12:30 / 16:00-19:00).

Axuri arteren eskulanak

Apirilaren 16 eta 17an plazan.

BERA

Isidoro Fagoagaren ibilbidearen erakusketa

Apirilaren 21etik aitzinera.

Antzerkiak

SARA

Ikastolako haurren antzerkia

Apirilaren 8an 17:00etan Lur Berri gelan.

BERA

'La caja mágica'

Apirilaren 8an 19:00etan 19:00etan Kultur Etxean.

Ikastaroak

BERA

'Osasun aholkuak Menopausian: Baikor onartu aldaketak'

Apirilaren 6an Beralandetan, 11:00etatik 12:30era. Izen-ematea osasun-zentroan.

PROPOSAMENA

SARA

34. aldiz Euskal Herriko Idazleen Biltzarra

120 idazle inguru eta hainbat elkarte eta argitale-txetako ordezkariak bilduko dira apirilaren 16an eta 17an Saran eginen den Euskal Herriko Idazleen Biltzarrean. Bi egunez, erakusketak, liburuen aurkezpenak, mahai-inguruak, hitzaldiak, antzerkia, haurrentzako animazioak eta gehiago ere izanen dira. Kiroldegian izanen da literaturzaleen hitzordua. 10:00etatik 18:30era egonen dira ateak zabalik.



Tinta eta hariarekin jostetan

Apirilaren 7an 18:00etan
Herri Liburutegian, 7-12
urtekoentzat.

ITUREN

Oin erreflexologia ikastaroa

Apirilaren 3, 10, 17, 24an eta maiatzaren 8an gurasoen-tzat, Yolanda Monterorekin, 16:30etik 18:30era udaletxeko ganbaran.

ARIZKUN

'Bizi bat nola salbatu' RCP tailerra

Apirilaren 22an 18:30ean.

ANIZ

Bazken aldizkatze ikastaroa

Apirilaren 29an Jauregian, 10:00etan. Izen-ematea hazitikhosie@gmail.com-en.

Kontzertuak

LEITZA

Ekiza musikariaren saioa

Apirilaren 7an 23:00etan
Torrean. Sarrera: 5 euro.

Kontzertu sakroa

Apirilaren 9an 12:00etan
elizan, Jeiki Abesbatzarekin.

SARA

Otxalde taldearen kontzertua

Apirilaren 16an 21:00etan
elizan.

SENERE

Pantxoa Carrereren kontzertua

Apirilaren 21ean Larreko Ge-
lan, 19:30ean.

BERA

Karnaba otxotea

Apirilaren 21ean 18:00etatik
aitziner.

Zinema

DONEZTEBE

Filmak Zineman

Apirilaren 9an *Trolls* filma
16:30ean.

Apirilaren 23an *Vaiana* filma
16:30ean.

Nire aukera



Helena XURIO ARBURUA
Zugarramurdiko eskrapalaria

«Beti izan dut edertasuna nunahi bilatzeko zaletasuna»

Emazteki arrunta» dela erranez aurkeztu digu Helenak bere burua, «bizia maite duena, Eskual Herri eskualduna eta mundu orekatuago eta justuagoaren alde borrokatzen duen hiru seme-alaben ama». Hala dio. Denbora librean, berriz, «maite dutan jendearekin egotea, bizikletan ibiltzea, eskulanetan aritzea, gitarra jotzea eta kontzertuetarat gatea» atsegin du. Aunitz bidaia-tutakoa da: «urteetan munduko zoko aunitzetan barna ibilia naiz zakua bizkarrean. Herrialde eta kultura aunitz ezagutzeko aukera izan dut dena urrun eta ezezaguna ginuelarik». Orain, orde, «leku eta jende horiek bakean uztea» sentitzen omen du, «ez dut hemendik mugitzeko halako beharrik edo gogorik». Baina hainbertze bidaia ondok, «gugandik hain desberdin eta aldi berean hain hurbil sentitu izan dutan jendearekin» gelditu da: «Asia, Afrika edo Ameriketako jende indigenak, zapaldu eta gutxiestuenak, jende alegera, jakintsua eta naturarekin bat bizi dena, oinarriko baloreak oraino bizirik dituztenak, beren etxea edeki daukuten eta zutena gurekin partekatu dutena». Etxera

«Urteetan munduko zoko aunitzetan ibilia naiz zakua bizkarrean eta bihotz oneko jendea atxeman dut munduan barna»

begira, Zugarramurdiko tokirik gustukoenaz galdetu diogu, baina garbi mintzatu da: «herri turistikoa denez, ez naiz sobera ausartzen erraterat, ixtantean hura ere turistaz josia atxemanen baitut». Herrian bizi izan den kanpoko lagun batek errandakoa ere gogora ekarri du: «Zugarramurdiko jendea herriaren geografia bezalakoa dela. Harek zioen gure herria ez dela bailara hetsi batean, itsasoari zabaltzen dela, eta egia da, Otsondotik begiratzuz gero, argi ikusten da; eta bertako jendea ere hala dela, edekia». Eskulanak eta argazkilaritza dira bere afizio haundiak, eta duela hamar bat urte bere zaletasun andana biltzen zuen teknika deskubritu zuen: eskrapa (*scrapbooking*): «oinarria argazkia da eta edozoin material erabiltzen ahal da argazki hori edo horiek edertzeko». Egindako lanen artean bereziki bihotzean du gan den urtean Parisko erakusketa baterako egindakoa: «Anariren *Oreinak* kantua izan zen nere inspirazioa eta emozionalki bizitzen ari nintzen pasarte gogor bat gainditzeko baliagarria izan zen. Nere-tako terapia gisako bat da».

ARANTZA

'Gutik Zura' dokumentala
Apirilaren 22an.

Ospakizunak

ZUGARRAMURDI

Korrika besta

Apirilaren 8an.

GOIZUETA

Korrika ttikia

Apirilaren 8an.

SARA

Idazleen Biltzarra

Apirilaren 16an eta 17an.

Dantzak

ELIZONDO

Baillableak

Apirilaren 9an Baztango dantzari eta Elizondoko gaiteroekin 12:45ean plazan.

Azokak

ELIZONDO

Bertako produktuen azoka

Apirilaren 14an eta 15ean 10:00etatik 14:00etara plazan.

Udaberriko feria

Apirilaren 21ean.

SARA

Bertako ekoizleen merkatua

Apiriletik irailera ortziraleko 16:30-20:30, frontoian.

Mendi ateraldiak

BAZTAN

Mendigoizaleen irteerak

Apirilaren 9an Elizondotik Hondarribiara (06:00).

BERA

Mendi Maratoi Erdia

Apirilaren 9an.

ARANTZA

Mendi lasterketa

Apirilaren 23an.

ETXALAR

Mendi itzulia

Apirilaren 23an.

ETXEBIZITZAK**salgai**

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisu salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe mobleztatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. ☎948 585036.

ANZABAL**INMOBILIARIA****BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI

- Etxe berri bat salgai, mobleztatua. 2000 m²ko lursailarekin.

DONEZTEBE

- Aukera: 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde mobleztatua eta 17 m²ko trastelekua.

Tel. 948 580 804

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi ka- rrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 57.900 euro. ☎646 774117.

SUNBILLA. 92 m²ko pisua salgai. Berogailua, igogailua eta garajeko marrarekin. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. ☎639 156105.

ARIZKUN. Aintzinalde auzoan Castroenea etxea salgai. 10 urte ditu etxeak. 6 logela, portxe handia, tximinia, berogailua... ☎639 585908 / 669 379498.

ITUREN. Neurri desberdinetako apartamentuak hagitz prezio interesgarrian salgai. ☎948 451337 / 667 275013.

MERKATU TTIKIA**948 63 54 58**

info@titi.eu edo erran.eu


SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 10€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 12€
IRAGARKI BAKOITZEKO GEHIENEZ 25 HITZ ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

BERA. Ugalzua kaleko 2. zenbakian, 79 m²ko pisua salgai. Sukalde-jangela-egongela, 2 logela, 2 terraza, igogailua, margotu berria eta garajea barne. 185.000 euro. ☎607 437189.

**ETXEBIZITZAK**
errentan hartzeko

DONEZTEBE. Pisu handia errentan hartu nahi da. 4 edo 3 logela eta trastelekua eta igogailuarekin. Eguzkitsua. ☎690 843948.

ETXEBIZITZAK
konpartitzeko

BERA. Konpartitutako pisuan logelak errentan emateko. Eztegarra 30 helbidean. ☎629 008081.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESAKA. 80m²ko lokala orduka errentan emateko. Arte martzialak, yoga, pilates, gimnasia aktibitateak lantzeko presatua. Partikularrentzako edo taldeentzako aproposa. Tatamia, zaku profesionala eta bertze habinbat gauzekin ekipatua. ☎629 687171.

GARAJEAK/LOKALAK
salgai

DONEZTEBE. Ameztiak karrikan lokal komertziala salgai. 98 m², azulejatua eta bainugelarekin. Erakusleho handia eta argitsua. ☎606 585163.

LANA
eskaintzak

On-line lanean aritzeko zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo

bertze langileak behar dira. ☎699 382673.

Etxalar Hotelean **sukaldaria eta harreragilea** behar dira. Harreragilea izateko baldintza bakarra 4 hizkuntza jakitea izanena da: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Curriculum: *in fo@etxalar.com*.

BERA. Lixioia ostatuan zerbitzaria behar da. ☎948 631271.

DONEZTEBE. Eroskitzako arraindegia zure kontura hartu nahi baduzu deitu. Hilabete batzuetan proba egin dezakezu. ☎948 456152.

ELIZONDO. Juli ostatuan asteburuetan lan egiteko norbait behar du. Barra, sukaldea eta jangelan aritzeko. ☎647 650248 / 628 054435.

Bentetan langileak behar ditugu: sukaldariak, zerbitzariak, harakinak,

saltzaileak, kajak... *ventasfrontiere@gmail.com* edo (0034) 626 247331.

Urdazubin emakume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. ☎686 634332.

LANA**eskariak**

Emakumezkoa lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna. ☎631 379865.

Haurrak zaintzeko eta **adinekoak** orduka edo internan moduan **zaintzeko** lan bila. Haurrak eta adinekoak zaintzen esperientziaduna. Langilea eta pazientziaduna. ☎635 296717.

Haurrak zaintzen esperientziadun emakumea zonaldean haurrak zaintzeko lan bila. ☎651 648733.

19 urte neska lan bila. Haurrak zaintzen, portak garbitzen, denda dependienta gisa... ariko litzateke. ☎676 217765.

Berako emakume arduratsua edozein lanetan aritzeko prest: garbiketan, adineko pertsonak zaintzen... ☎667 958488.

Interna moduan adinekoak zaintzeko **emakumea** lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna eta garbiketa lanetan aritua. ☎631 379865.

Emakumea Baztanen lan bila. Adinekoak zaintzen esperientzia handikoa (6 urte). Adinekoak edo haurrak zaintzen edo garbiketaren interesa. ☎606 589377.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(martxoaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 65 €

Zerri gizena
1,250 € kiloak.

Zerramak:
0,760 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,19

1.koa 3,96
2.koa 3,78

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,27
1.koa 4,00
2.koa 3,83

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 160,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 140,00
idixkoak 180,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 3,26/3,36
Zaldi-behorrak: 1,93/2,10

Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,40/6,00
8-10 kilokoak: 4,70/5,20

BERAKO TAILERRAK

SEAT IBIZA. 1400 TDI motorra. Aire girotua. Leiho elektrikoak. 10 urte. Egoera onean.

DIESEL

VW Touran. 1900 TDI. Klimatizagailua. Aluminiozko llantak. 12 urte. Hagitz ongi.

DIESEL

N-121-A errepidea 63.km BERA
T. 948 631 157 - 659 092 472

Baztanen adinekoak zaintzeko esperientzia handiko **emakume euskalduna** lan bila. ☎948 453135.

Adinekoak zaintzeko lan bila. Adinekoak zaintzen esperientziaduna eta ordutegi aldetik disponibiltatea. ☎606 330200.

MOTORRAK salgai

Suzuki GS500E moto-rra salgai. 1991koa. ☎680 770682.

ANIMALIAK oparitzeko

ITUREN. Sei txakurkume oparitzeko. Hilabete eta erdi dute. Ama setter arrazakoa eta aita mestizoa. ☎609 833055.

DENETARIK salerosketak

Altzairuzko sei fregadera salgai, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONÓZ. Egurra xehe-tua salgai. Pagoa eta hari-tza. Etxera eramanen da. ☎676 242520.



Gereziondo egurrezko **jangelako mahaia** hiru luzagarrirekin (116 cm - >155 cm -> 195 cm -> 235 cm) eta **lau aulki tapizaturekin** salgai. Mahaia egoera ezin hobean dago. ☎617 055249.



Estufa industrialia salgai. Gasolioa. Prezioa: 1.000 euro. ☎948 630669.



Logela osoa salgai. 2 ohe, mesanotxea, komoda ispiularekin eta armai-

rua. Materiala: pinua. ☎676 442504.



Akazia piketeak salgai, 2,5 euro bakoitza. ☎948 510143.



Beheko sua salgai. Egitura osoa, egurra, harria



SANTESTEBAN TAILERRAK

Estreinatu gabea!

21.700€ **KM 0**

KADJAR ZEN DCI 130 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsorea kamararekin, Farok "full led"

16.200€ **KM 0**

Estreinatu gabea!

CAPTUR ZEN DCI 90 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsorea kamararekin.

17.800€ **KM 0**

Estreinatu gabea!

MEGANE IV ZEN DCI 110 CV
Klimatizagailua, nabigatzailea, aparkatzeko sentsorea.

* Sustapen finantzarioa lotua

Leitzako errepidea **DONEZTEBE**
T. 948 450 282 - doneztebe@red.renault.es

eta guzti. Hagitz egoera onean. ☎699 912159.

KATEA BIKE

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
kateabera@telefonica.net

Gaztain piketeak salgai. 2 euro bakoitzeko. ☎680 700374.

Atera TTIPI TXARTELA hemen probextu aukera!

ttipi txartela

Josune Sorondo Odriozola
72673152-A
2019/04
372

ttipi-ttapa

Erabili Ttipi txartela pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

PLAZAN BAZAN



- 1 Fruta eta barazki ugari ikusten da hemen, baina ba ote da limoirik?
- 2 Eta porrurik?
- 3 Zenbat gerezi ikusten dituzu?
- 4 Ba ote da ur botilarik?
- 5 Marmelada egiteko oinarri-oinarrizkoak fruta, azukrea, eta ura dira. Erreparatu marrazkian dauden fruta guztiei eta erran: hemen dituzun poto hauetatik zein ezinen genuke bete?



Marrubia



Udarea

Mertxika edo
melokotoia

Mandarina



Arana

ARROTZA

Hemen bada elementu bat gainerakoekin bat ez datorrena, zein da?



MARGOTU

Kameleoiek aldaterearen arabera aldatzen omen dute larruaren kolorea, normalean. Honek ordea, gordetzeko egingo du. Inguruko koloreak hartuz, kamuflatu egingo da. Zein itxura hartuko du? Margo ezazu



INTERNETEN ERE BAI !



plazanbazan.eus

KIOSKOA - JOLAS-PARKEA
AZOKA - UDALETXEA - IKUSKIZUNAK
IPUINAK - KOMIKIAK - MARRAZKIAK



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

PUBLIZITATEA



NEUS BERNABEU VILA TERAPEUTAK

zailtasun horiek guztiak gainditzeko laguntzeko hainbat teknika baliatzen ditu: esku eta oinetako reflexologia, kiromasajea, hirutasun esentzia eta reikia

Arazo fisikoei aurrea hartu gorputza zainduz!

690 843 948

DONEZTEBE
KIMETZ BELARDENDA
Leitzako errep, 3

ELIZONDO
Santiago kalea, 58

ETXEZ ETXEO
ZERBITZUA



BELDURRA · ARRETA GABEZIA · HIPERAKTIBITATEA · TRISTEZIA
AMORRUA · URDURITASUNA · KOLIKOAK · ESGINZEAK
DIGESTIBOA · ZIRKULAZIO ARAZOAK · KIROMASAJEA...

urtebetetzeak

Argazki soila: 5€; bikoitza: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,45€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



Arantzako
AIERT
BALEZTENA
Goñik 2 urte
bete ditu
apirilaren 4an.
Zorionak familia
guztiaren parte-
tik. Muxu bat!



ARIANE NAPAL IBARRAK martxoaren
23an urte bat bete du. Zorionak
Sunbilla eta Berako familiaren
partetik. Muxu bat printzesa!!!




Zorionak Doneztebeko **NAHIA**
BELARRA MARIEZKURRENARI
martxoaren 26an 6 urte bete
dituelako. Zorionak Doneztebe eta
Ezurrako familiaren partetik,
berexiki Oier, Enaitz, Ekhi,
Ainhitze eta Naroaren partetik!
Prestatu merendu goxoa!



IZARNE AGESTA PETRIRENARI urtea
beteko du martxoaren 29an.
Zorionak attia, ama, Enaitz eta
Berako atxirenen partetik.



Aurtizko **XABAT MINDEGIA** Goñik
apirilaren 10ean urtea beteko du.
Zorionak eta muxu potolo bat attia
eta amaren partetik. Egun ona
pasa!



PABLO IRAZOKI OLAIZOLA
urdazubiarrari pila bat zorionak!!!
Nafarroako bigarren gelditze alde
FAR PLUS farmazi taldeak antola-
tutako lehiaketan.



XABAT MINDEGIA aurtiztarrek urtea
beteko du apirilaren 10ean. Muxu
haundi bat zure bi lehengusina
bihurrien partetik. Berendu goxoa
prestatu, gu han egonen gara eta!




Joeeee, nola
haunditu zaren,
ANE!!! 18 urte
bete dituzu
apirilaren 2an....
Ea ospatzen
dugun txanpa-
rekin... Zorionak
wapa!



Martxoak 31n **ENAITZ IPARRAGIRRE**
ARRETXE gure etxeko txapeldu-
nak 8 urte bete ditu. Auniz urtez
Berako familia osoaren partetik.
Muxu pila bat eta ongi pasatu.



Apirilaren 2an
9 urte bete ditu
Aizoain bizi
den **IRAIA REMI-
REZ PERURENARI**.
Zorionak gura-
so, ahizpa eta
Iturengo familia-
ren partetik.



OLATZ IRIARTE ITURZAETAK urteak
beteko ditu apirilaren 13an. Auniz
urtez eta muxu haundi bat etxeko
guztien partetik. Prestatu merendu
goxo-goxoa, e!!!



ARET ONSALO SAIZAR martxoaren
22an jaio zen. Hauxe bai
udaberriko lore polita! Ongi etorri
Aresora! Zorionak gurasoei eta
muxu potolo bana!

erne ikastetxeak!

ikasle eta
irakasleen
agendak

Prezio eta aukera desberdinak
zure beharretara egokituak.
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



ttipi-ttapa

Koskontako bidea 7, beheak | 31770 LESAKA


Tel.: 948 63 54 58 | kulturkari@ttipi.eus

- Datu pertsonalak
- Ikasturteko egutegia
- Asteko dietarioa
- Ebaluazio orria
- Jakinarazpenak
- Orrialde pertsonalizatuak

AZALAK PERTSONALIZATUAK

PLASTIKOZKO TAPAK

ESPIRALAREKIN KOADERNATUAK



EUSKALTZAINDIA

SARAKO 34. IDAZLEEN BILTZARREAN

2017ko APIRILAREN 16-17an

Apirilaren 17an, 10:30ean Euskaltzaindiak aurkeztuko du:

Piarres Larzabalen antzerkigintza (1950-1982)
Euskarazko antzerki identitarioaren paradigmak
Ixabel Etxeberriak idatzitako lana

Euskaltzaindiaren Hiztegia.
Bigarren argitaraldia



2016 · ABENDUA



Liderrak

gure eskualdean

eta baita azterketa egiterakoan

CIESe Nafarroa Garaiko mendi aldean

hartu duen 111 udalerrien eremuan ere



Ttipi-Ttapa

27.000 irakurle

DIARIO DE NOTICIAS	11.000 irakurle
DIARIO DE NAVARRA	10.000 irakurle
GARA	7.000 irakurle
BERRIA	2.000 irakurle
EL PAÍS	2.000 irakurle
MARCA	2.000 irakurle
EL MUNDO	1.000 irakurle
BESTE BATZUK	7.000 irakurle

Ttipi-Ttaparekin

zure iragarkiak eragin haundiagoa du



SEXUAREN ARABERA

GIZONAK	%52,70
EMAKUMEAK	%47,30

ADINAREN ARABERA

14-24 URTE	%09,00
25-34 URTE	%12,70
35-44 URTE	%22,50
45-54 URTE	%16,30
55-64 URTE	%21,40
+64 URTE	%18,10

IKASKETA MAILAREN ARABERA

LEHEN HEZKUNTZA/GUTXIAGO	%30,40
ONARRIZKO BATXILERGOA	%13,50
GOI MAILAKO BATXILERGOA	%28,50
UNIBERTSITATEA	%27,60

Datu iturria: CIES, 2016ko bigarren neurketa

Ttapi Txartela

arekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Ko-kontako bidea, 7 LESAKA

T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

682

aleko
irabazleak >



ZOZKETAK

Lesakako Udal Kiroldegia - 2 sarrera
Juan Antonio Indaburu Bereau | ETXALAR
Baztan Abentura Park - 2 tiket
Sabino Cuadra Lasarte | ELGORRIAGA
Irrisarri Land - 2 sarrera
Ernesto Ariztegi Etxepeteleku | ITUREN
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Itziar Galarregi Blanco | URDAZUBI
Onddo ta punto - Kamiseta bat
M^a Pilar Azkarate Yanci | AZPILKUETA
La Rhune - 2 sarrera
Jenaro Sagastibeltza Olaetxea | LEITZA
Txalaparta argitaletxea - Liburu bat
Octavio Roqué Herrera | ELIZONDO
Txalaparta argitaletxea - Liburu bat
Juan José Atxa Mindegia | ELIZONDO
Txalaparta argitaletxea - Liburu bat
Begoña Quintano Fernandez | ATARRABIA

2 sarrera



CAMELOT PARK
www.camelotpark.es

2 sarrera




ZUGARRAMURDIKO LEZEA
www.turismozugarramurdi.com

2 sarrera



DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera helduentzat

LI BU RU AK



- Burua galdu zuen jirafa
- Giosepporen sudurra
- Paxkalin

elkar
www.elkar.eus

LA GUN TZAI LEAK



www.lanku.eus



www.irrisarriland.eu